

# URRIAK 25

## Atarikoak

2009gn urtea amaitzear dugula, gure herrian hain ugari gertatzen diren “bat etortze” “banatzaile” horietako bat dugu hizpide. Urriaren 25a Euskadiko Jaiegun izendatzeko eskatu dute PSOE, PP eta UPyD Alderdiek Gasteizko Eusko Legebiltzarrean. Ordezkaririk duten gainerako Alderdiek (EAJ-PNV, Aralar, EA eta IU) kontra bozkatu dute. Ordezkaririk ez duen NAEMko Ezker Abertzaleak ere ez du jaiegun hori gogoko. Legebiltzarrerako hauteskunderik ospatzen denean abstenitzen direnek ez dakigu zer esango duten. Baina argi dago, EAE-aren Herri Eguna bezala erabaki nahi den Urriaren 25ak, baterapen beste zatiketa sortarazten duela euskal gizartean eta aldeko beste herritar dituela kontra.

Jaiak hain gogoko ditugunon artean, nola gerta liteke horrelakorik? Urriaren 25a, bi gertakizun nagusi seinalatzen dituen data dugu Euskal Herriaren historian.

- Gertakizun horietan lehena, 1839eko Urriaren 25eko Legea da: Espainiako Cristina erreginak Hego Euskal Herrietako jatorrizko legeak Madrileko Gorteen esanetara jartzeko egin zuena. Gertakizun oso erabakiorra izan da gure herriaren gerozko joan-etorrian. Gogoratu behar da, Hegoaldeko herritarrak Kristino-Karlisten arteko gerran murgildurik ibili zirela sei urtez, elkar ia erabat akitzera. Irtenbidea, Bergarako bake ituna izan zen, Foruak errespetatuko ziren baldintzapean onartu zutena euskal herritarrik gehienek. Marotok eta Esparterok elkarri eman zioten Bergarako Besarkada, uste horren lekuko zela sinestu zutenek ere, handik gutxira jakin zuten uste horren erdia baino gehiago zegoela usteldurik.

Ustearena eta bere erdi-ustelarena ulertzeko nahikoa da ondorengo adibide hau. Bergarako Bake Ituna (1939-VIII-31) sinatu zutenen lekukoetako bat izan zen Lardizabal arma gizona, Gipuzkoako Segura eta Laurgaini atxikia. Ba, bere biloba bat, Lardizabal hau ere, izango da, Gipuzkoako EAJ-ko lehen Lehendakaria, hain zuzen bere programaren helburu nagusitzat 1839-X-25 eko Legea ezabatzea zuen Alderdikoa. Urriaren 25eko Lege horren kontrako jarrera izan da, irizpide politikoari dagokionez, Hegoaldeko euskal herrietan jenderik gehiena bateratu izan duena XIX mendearen azken laurdenean eta XX mendearen lehenengoan.

- Urriaren 25ak seinalatzen duen bigarren gertakizuna, 1979koa da, Hegoaldeko hiru euskal lurraldek onartu zuten Gernikako Estatutuaren hasiera muga dena. Hain zuzen, Estatutu hori bere Legetzat onartzean Madrileko Gortek, aitortu zuten, hein batetan, 1938eko Urriaren 25 eko Legea ez zela bidezkoa izan. Aitorpen hori lortzeko ezarri bai zen, Gernikako

Estatutuaren eranskina. Eta, hain zuzen, eranskin horretxeko kontrakoak zirenak dira gaur, Urriaren 25 a jai egun ezarri nahi dutenak.

Giro honetan, galdera nagusi bat da, beste gehiagoren artean, argitu beharrekoa: zer ezeztatu nahi da eta zer baieztatu nahi da Urriaren 25 dela-eta.

Galdera horrixe erantzuteko, bi idazlan eskaintzen dira. Bata, 1980-1995 bitarteko hainbat gorabeheera aztertzen dituen eta gerora gertatu den bilakaera ulertzeko ere balio duena, bereziki Urriaren 25 ak duen esnahi bikoitz eta kontrajarriaren inguruan. Bigarrena, hurrengo alean eskainiko dena eta 1996-2009 aldia jorratuko duena.

## I

# **EUSKALERRIGINTZA ABERRIGINTZA GERNIKAKO ESTATUTUA 1980-1995<sup>1</sup>**

1. Sarrera
2. Euskalerrigintza indarberritzeari begira zer esanahi izan zuen Gernikako Estatutuak eusko abertzalerik gehienon baitan
3. Esperantza horiek egiazatzeko eragozpenik handienak nondik etorri zaizkigun:
  - Espainiako estatu-buruzagitzak agindutakoak ez betetzetik
  - ETA-ren jarraiko ezker abertzalearen erasotik
  - Abertzaletasunaren kontrako gurutzada ideologikotik
  - Gernikako Estatutuaren aldeko zenbait buruzagi abertzaleren jarraikeriatik edo segidismotik
4. Euskal herrigizartegintza eta burujabetza
  - Norabideaz
  - Indarrak biltzeaz

\* \* \* \* \*

---

<sup>1</sup> Idazlan hau PIZKUNDEA elkarteak eman zuen argitara, beste hainbat saioarekin batera 1996 gnean: Ikus: 1ª Jornada sobre nacionalismo. (e). EUSKO PIZKUNDEA; MONREAL, Gregorio eta beste. Eusko Pizkundera. Donostia 1995

## 1. Sarrera

Azkenaldi honetan euskaldun, euskotar, euskaltzale eta abertzale askok adierazi du, euskal herrigintzarako gogoetak eta ekinbideak indarberritu beharrean gaudela, gure herri-gizarte honen eginbideei behar bezala erantzuteko<sup>2</sup>. Bereziki Gernikako Estatutuaren aldeko apustua egin zuen hainbat abertzalek<sup>3</sup> emana du aditzera, abertzaletasunak eta aberrigintzak *indarberritze* bat behar duela<sup>4</sup>. Indarberritzeak, jakina, zera esan nahi du: *lehenago indarrean zegoena eta orain makalaldian dabilena, berriro indar araztea edo indarrean jartzea*. Abertzale Gernikazaleak ikusten baitu orain hamasei - hamaika urte bitarte hartan bizi izandako jasoaldi eta gorakada hura (450.000 herritarren borondatea biltzerainokoa) zapuztu egin dela geroztik, neurri batean behinik behin. Eta indarberritzeko bi eratako sendabideak aipatu ohi dira: norabidea berritzea (sustraiak berritzea, alegia, loratze hobea eta ugariagoa ekarriko duelakoan), batetik, eta sakabanatutako indarrak bateratzea edo biltzea (gutxi direnak, ahulago baitira banaka), bestetik<sup>5</sup>. *Eusko Pizkundea* bera ere euskal herrigintza indarberritu nahieko borondate horretan ereindako hazi zaharberritua genuke.

Nire iritziz, abertzale Gernikazaleon artean gutxiegi aztertu da, baina, herrigintzarako hartu genuen eginasmoa zerk indartu zuen bere garaian, eta zerk ekarri duen makaltzera geroztik. Gaitzaren jatorriaz diagnostiko egokirik egin gabe, sendabide egokirik nekez asma daiteke. Horregatik uste dut, sendabideaz hitz egiten hasi aurretik,

---

<sup>2</sup> *Gizartea, herria eta aberria*, gogakizun direnez, bereiztea lagungarri gerta daiteke euskal herri-gizarteari dagozkionak aztertzeke. Orobat beraz, *gizartegintza, herrigintza eta aberrigintza* (ondorioz, baita *herrizalea* eta *abertzalea* eta antzekoak ere). Bereizketak bereizketa, ez diete denek esanahi berdina ematen *abertzale, abertzaleatsun* eta *aberrigintza* hitzei. Zenbaitentzat patriota/patriote, nacionalista/nacionaliste, abertzale hitzek esnnahi bat-bera eta berdina luteke. Beste zenbaitentzat, ordea, ezta horrela. Idazlanaren amaiera bukatzerako argituko dugu.

<sup>3</sup> Abertzale denak etziran bat etorri Franco hil osteko igaroaldian hegoaldeko Euskalerrigintza nodiknora bideratzeaz. Gernikako Estatutuaren aldeko bidea hartu zuten abertzaleak bereizteko, *abertzale gernikazaleak* bezala izendatu ditugu azterketa honetan. Gero argituko dugunez, bada, baina, bestelako abertzalerik igaroaldian. Baita Gernikako Estatutuaren alde jarri den abertzale eta nazionalista ez denik ere.

<sup>4</sup> Aski da egunkaritan egindako hainbat adierazpenetatik bat edo beste jasotzea hortaz jabetzeko. G.Monreal irakasleak idazlan oso bat eskeini zion *Regeneración* izenburupean, hain zuzen, bereziki abertzaleen gogoetak eta ekinbideak berritu beharrari, 94.eko Aberri Eguna aitzaki hartuta (Deia, 1994.04.03). Dena den, Carlos Garaikoetxeak, bere aldetik, urteak daramatza *aberrigintza bultzada indarberritzailearen beharrean dagoela* esaten (ikus, adibidez, El Mundo 1992.01.24; El Diario Vasco, 1992.04.04 -Alberto Suriok eginiko elkarrizketan-; DV, 1993.07.25). Oraintsuago, Arana-Goirik sortu zuen lehenengo Alderdi Abertzalearen mendeurrenari begira, hamaika izan dira abertzaletasuna bizi- eta indarberritu behar dela adirazi dutenak, adibidez Luis Mari Retolaza-k *es nuestra voluntad regenerar el nacionalismo vasco* (El Mundo, 1994.09.23)

<sup>5</sup> Ikus adibidez, Gregorio Monreal, Jose Maria Agirre, Joaquin Eloseggi eta Kepa Bilbao, honako galdera honi erantzuten: *¿Considera posible la reunificación del PNV y EA a medio plazo?.*, in:El Correo, 1994/06/27; ikus orobat urte bete lehenago, antzeko galderari (*¿Considera factible a medio plazo una confluencia del PNV y EA?*) egunkari berean emandako erantzunak beste hauek: Mario Fernández, Eugenio Ibarzabal, Marcos Vizcaya eta Emilio Guevara-k (1993/03/15)

ondo aztertu behar dugula, zertan eta zergatik gaixotu den euskal abertzalerik gehienok - beste askorekin batera- bultzatu genuen *Gernikako Estatutuaren* bideko euskal herrigintzarako eginasmoa.

XX. mendearen azken laurden honetan gertatu zaiguna eta bizi izan duguna aztertzeko zenbait argibide ematen saiatuko naiz, honako aribide honi jarraituz:

- Zer-nola gertatu zen Gernikako Estatutua euskal herrizalerik eta eusko abertzalerik gehienek gogo zuzpertzaille, indar emaile eta baterazle.
- Zerk ekarri ote duen makaltzera eta indarra galtzera abertzale gernikazaleen eginasmoa eta baterapena.
- Zertan sustraitu ote gintezkeen euskal herrigintzarako burubideak indarberritzeko eta ekinbideak gaur-biharko herri eginkizunei egokitzeko.

Galdera horiek emango diote joskera nire ihardunari.

## 2. Gernikako Estatutua eta euskalerrigintza abertzalerik gehienon baitan

Eusko abertzalerik gehien-gehienok bi helburu nagusi genituen Franco hil ondorenerako:

- Euskalerrria bidegabeko indarkeriaren menpekotasun orotik erabat askatzea (armen eraso, bortxa, tortura, bahiketa eta gainerakoak desagertaraziz), bai bere baitako herritarren eta eskualdeen arteko harremanetan, baina baita auzo herriekiko eta estatuiekiko harremanetan ere.
- Euskalerrriaren berreraikitze demokratikoari ekitea Hegoaldean, horretarako gutxien gutxienekoak diren bitartekoak eskuratuz, nor garenez eta herri garenez geure buruaren jabe gertatzeko bidean.

Abertzalerik gehienok helburu bi-biak bata bestearen uztarlagun jotzen genituen. Eta gehienak izan ginen helburu horiek lortzeko bide egokitzat jo genuenak Gernikako Estatutua. Horren zergatirik nagusienak, honako hauetara laburbildu daitezke:

- Eusko abertzalerik gehienon ekimenak zerikusi handia izan zuen, Gernikako Estatutuaren jatorrizko edukia taxutu zen bezala taxutzeko. Ekimen horrek, bi alde nagusi izan zituen: aurrenik, Espainiako Konstituzioak euskalerritarren gehiengoaren baiezkoa ez jasotzearena eta, ondoren, euskalerritarren gehiengoak elkartu lezakeen Estatutu bati ateak zabaltzeko giltza eskaintzearena.
- Gernikako Estatutuaren edukiak berak -itundu edo hitzartu zen bezala eta euskalerritarroi aurkeztu zitzaigun jatorrizko eran- honako hauek zituen euskal herrigintzari abertzale bezala ekiteko:
  - \* erdoilduta zegoen euskal herrigintzari heltzeko adina konpetentziak ezezik, egiturak eta bitartekoak;

- \* eskualde ezberdinetako euskalerritarrek hala nahi izanez gero, Hego Euskalerriko lau lurraldeak elkartzeko aukera;
  - \* guzti hori baina, inola ere ukorik egin gabe euskotar abertzale batek muinekoa duen goiburuari, eranskinean esaten baita "*Estatutu honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari gisa historian barrena dagozkioken eskubideei uko egiten zaienik, ordenamendu juridikoak erabakitzen duenaren araura gaurkotu daitezkeelarik*"<sup>6</sup>;
  - \* jatorriz eta asmoz hizkuntza, goiburu eta gizarte eredu ezberdinetara atxikitako taldez osaturiko oraingo euskal gizarte honetan, oinarrizko herri elkarte bateratua indartzeko aukera, beti ere herritarren borondate demokratikoa azken epaile moduan hartuz.
- Ahalbide horiek herrigintzan ondo erabiliz, Estatutuaren kontrako abertzaleak eta, orobat, abertzale ez ziren gainerako herritarrak ere, aberrigintza demokratiko eta aurrerazale baten alde irabazteko aukera.

Abertzale gernikazaleak ere ez dira beren berezko berezian estatuistak, Euskalerriri nor izate politiko osoa aitortzearen aldekoak baitira. Baina eusko abertzalerik gehienek uste zuten Gernikako Estatutuaren erabateko bilakaerak eta gure herriaren baitatik indarkeria basatiak uxatzeak sortuko zutela baldintza hoberik, bertako herri gizarte oinarrizko eginasmo berean elkartu, Euskalerrri aurreratu eta baikor bat eraikitzeari ekin, nafarren borondatea irabazi eta, epe luzeagora -herri aurreratu eta baikor bat eraikitzen joanaz hegoaldean- iparraldeko eusalerritarrekin ere -beren borondatez eta gogoz- elkarlanean biltzeko.

Abertzale Gernikazaleen jarrera tenore honetakoa zela jabetzeko, aski da urte haietako EAJ/PNV-eko buruzagien eta C. Garaikoetxea Lehendakari zela osatutako Eusko Jaurlaritzen kideen adierazpenak gogoratzea<sup>7</sup>.

Horiek izan daitezke, nire baitako, abertzalerik gehien borondatea *Gernikako Estatutuaren* alde irabazi zuten zioak. Horren lekuko 80.go lehen urteetan abertzale Gernikazaleen artean nabaria zen ilusioa eta esperantza, lanerako gogoan eta kemenezko emanean erakusten zituztenak, herrigintzari eta aberrigintzari zegozkionetan. 90.go urteetatik begiraturaz, ordea, zaputzaldiak ikusten dira geroztik.

Zaputzaldi horren sakoneko arrazoia, noski, bi helburu nagusi haiek (bidegabeko indarkeriaren desageraraztea eta agindutako euskalerrigintza) ez lortzean datza. Baina eztira lortu ez bata eta ez bestea. Bata eta bestea, biak, elkarren menpeko direlarik abertzalerik gehienon ikusgunetik, ezta harritzekoa hainbatek bizi duen etsipena.

---

<sup>6</sup> EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz 1983.

<sup>7</sup> 78.eko Konstituzioari baiezkorik ez ematea eta, ondoren, Gernikako Estatutua oniriztearen arrazoiak buruzagi horien ustetan zeintzuk ziren argitzeko, garaiko hemerotea da lekukorik onena. Osagarri bezala, ikus: *El Partido Nacionalista Vasco ante la Constitución. Historia y alcance de unas negociaciones*, Bilbao 1978.

Egoera honetan, ezinbesteko galdera dirudi zergatiaz galdetzea.

### 3. Abertzale Gernikazaleen helburuak zergatik ez diren bete

Bidegabeko indarkeri basatiak hor dirau eta Gernikako Estatutuarekin agindu zitzaiguna betetzeke dago hamasei urteren ondoren. Inozoenak ere ezin sinestu lezake, jatorrizko Gernikako Estatutuaren benetako garapena euskalerritarrik gehienen borondate demokratikoaren faltari edota arazo teknikoei zor zaionik. Arrazoia, beste nonbait aurkitu behar da. Nire iritziz Estatutua ez garatzearen erantzukizuna duten jarrera eta jokabide nagusienak bi iturburu dituzte: Espainiako Estatuko buruzagitza gorena, batetik, eta ETA-ren jarraiko Ezker Abertzalea, bestetik. Eta bi horien lagungarri gertatu dira beste bi hauek: euskal nazionalismoaren kontrako eraso ideologikoa eta abertzale gernikazaleen (batez ere beren arteko zenbait buruzagiren) jarraikeria edo segidismoa.

#### 3.1. *Espainiako Estatuko buruzagitza gorena eta Gernikako Estatutua*

Franco hil osteko demokraziarako igaroaldiaren etorrian, Espainiako Estatuko buruzagien Euskalerriarrekiko jarrera aipatu beharra dago, beren Gernikako Estatutuari buruzko jokabidea ulertzeko.

Espainiako 78.ko Konstituzio berriaren inguruko eztabaidan, Estatuko buruzagitza nagusitu ziren tesiak, honako hauek izan ziren: a) Espainiaren nazio-batasuna auzitan jar zezakeen ezer ez aitortu Konstituzioan, batez ere Euskalerritari eta Catalunya begira; b) Administrazioa dezentralizatzeko bideak zabalik utzi; d) euskal eta katalan abertzaleek horrelako Konstituzioa onartzen bazuten, Autonomia Estatutu zabalak eskaini hango lurraldeetako buruei.

Espainiako estatu buruzagitza, beraz, Euskalerritari eta bere lurralde edo eskualdeei *jatorrizko eta berezko nor-izate politikoa* aitortzearen kontrakoa zen. Jarrera hori jaso zuen 78.ko Konstituzioak eta horregatik ukatu zion euskalerritarren gehiengoak bere baiezkoa<sup>8</sup>.

Egoera ezkor horretatik ateratzeko heldu zitzaion Gernikako Estatutuaren bideari. Bide horrek, abertzale Gernikazaleen aldetik aipatu dugun erako onarpena eta

---

<sup>8</sup> Franco hil eta berehala, Espainiako Estatuko buruzagirik gorenek zenbait bide ebakitzeari ekin zioten, euskaldunon auzi mauzia behin betiko estatalizatzeko, alegia, Euskalerrria Estatuaren soberaniazko batasunean erabat txertatzeko, Euskalerritari bere nor-izan politiko berezkorik aitortu gabe, nahiz eta deszentralizazioaren aldeko zenbait eskaintza egin. Asmo horren ildotik saiatu ziren, lehen pauso gisa, euskal arazoa katalanizatzen, Tarradellasen bitartez. Pauso hauek denak helburu nagusi hau zuten: euskaldunek Espainian egiten ari ziren Konstituzioari beren baiezkoa eman ziezaioten lortzea, nahiz eta Konstituzio horrek, Euskalerritari begira, Italiako deszentralizazio ereduari jarraitzen zion. Bide honi jarraitzekotan, Euskalerririak bere burua Madrilgo Gorteen meneko soil bezala onartu beharko zukeen. Horrela baina -nahiz ta arrigarria dirudien- ez zitzaion Euskalerritari aukerarik eskeintzen auzo herriekin ere (Estatuarekin alegia) elkarerik sortzeko, hain zuzen, euskaldunik gehienen artean halako gizarte jarrera ezkor bat sortzen zuelako Espainiako konstituzionalisten joera horrek.

Hori dela-ta jarri zitzaizkion joera horri buruz buru euskalerritarrik gehienak, konstituzioaren erreferendunean adierazi zenez.

oniritzia zuen. Baina Estatuko buruzagien aldetik, bi jarrera erabat kontrajarriak nabarmendu ziren. Jarrera baikorra -alegia, Gernikako Estatutuaren jatorrizko bidean sinesten zuena- eta bide hori mesfidantzaz ikusten zuena. Jarrera baten lekuko dugu Suarez Presidentea eta bere zenbait lankide (79-81). Suarez bota zutenak eta ondorengo buruzagiak beste jarreraren aldekoak (81- 95).

*a) 79-81.eko otsaila bitartekoa*

Espanian onartu berria zen Konstituzioak onetsi nahi izan ez zuena jasotzen zuten Gernikako Estatutuak. Aldaketa hori bideratu zuten estatuko buruzagitzaren ageriko ordezkaria Suarez Presidentea dugu, noski. Baina geroztik gertatuko argitan, Suarez-en eta bere iritziko lagun apustu honek, bazuen etsairik, baita etsai handirik ere. Dena den, Suarez-en gidaritzapeko aldi hartan eman ziren aurrera pausorik nabarmenenak Estatutua garatzeko. Haren agintealdia bukatu orduko, zeharo bestelako jarrera nagusitu baitzen Estatuko buruzagien aldetik.

Nolanahi ere, ETA-ren atertu gabeko erasoak, Gernikako Estatutuari uhalak edo bridak jartzea, Suarez-en dimisioa eta Otsailaren 23-ko kolpisten ekintza, elkarrekin lotuta daudela dirudi, ondoren gertatu direnen argira.

*b) 81-eko otsailetik gaur artekoa*

Aldi hau Gernikako Estatutuaren bide abertzaleei atea ixtekoa da. Calvo Soteloren eta haren ondoren etorri zen sozialisten gobernuaren jarrera Gernikako Estatutuarekiko, LOAPA-k markatzen du juridikoki, transferentzien ukazio sistematikoak administratiboki eta abertzaletasunaren kontrako gurutzada zabal batek politikoki.

Hiru lekuko ekarriko ditugu, hirurak ezberdinak, baina joera bat bera erakusten dutenak abertzale Gernizaleekiko: ***Andrés Cassinello, José María Benegas eta Luis María Ansón.***

**Andrés Cassinello**

Andrés Cassinello Pérez izan da Franco-ren osteko igaraldi politikoan erasanik handienetako izan duen militarretako bat. Bera izan zen, adibidez, klandestinitateko garaietan Felipe González eta Alfonso Guerra PSOE-ko burukideekin, harremanetan jarri zena: *“A principios de 1975, estando todavía el PSOE en la clandestinidad, su primer secretario, Felipe González, y el secretario de Información y Prensa, Alfonso Guerra, recibieron en París a dos enviados del Servicio Central de Documentación (SECED). El que llevaba la voz cantante era el comandante Andrés Cassinello, que en ese momento era jefe en funciones del más importante servicio de información que tenía*

*el franquismo*”<sup>9</sup>. Gaur egun Kapitain Jenerala da eta bitartean erantzukizunik handieneko kargutan ari izan da lanean.

Berari zegokion erantzukizuna zen nonbait, militar buruzagien jarrera adieraztea euskal arazoaz. Horretarako parada eman zion *Terrorismoaz* Madrilen 1982.ean ospatu zen symposium batek, han aurkeztu bai zuen “*E.T.A. y el problema*” vasco izeneko txostena, 24 orritan jaso, eraski gisa gehiago baditu ere. Kontua da txosten horretan garbi adierazten direla honako puntu hauek:

- *Estatu problemarik latzena ETA-ren terrorismoa dela*
- *ETA-ren iturburua abertzaletasuna dela*
- *Nazionalismoak dirauen bitartean ezin konponduko dela ez terrorismoaren auzirik ezta ere euskal arazorik*

Hona hemen Cassinello-ren txosteneko zenbait pasarte adierazgarri:

Arazoaren iturburuak aztertzen batere saiatu gabe, honela dio: “*La tragedia es que desde 1833, hace ciento cincuenta años, no ha habido una generación vasca que no haya contemplado a los españoles a través de la mira de su fusil. Eta zergatietaz galdetu gabe berriro: "hay una línea ininterrumpida que lleva del Carlismo al nacionalismo naciente de finales del pasado siglo, y {...} ETA se forma en el seno de este último como una consecuencia directa de una lógica llevada hasta sus últimas consecuencias."* Eta garbi azaltzen du “*El tema es el terrorismo en España {...}; más aún, en lo que ha venido en llamarse **problema vasco** y que constituye el principal problema de nuestra Patria ."*

Cassinello-ren ustetan ETA-ren baitan ez dago ideologiarik, sentimendu baten erabilpena baizik. Ideologia sortarazi eta mantentzen duena, hain zuzen, nazionalismoa da, kasu honetan batez ere PNV: “*si esperamos un fuerte cuerpo doctrinal tras cada propósito terrorista estamos equivocados; las ideas van con unos y las bombas con otros {...} Hay más ideología en el PNV y en el EMK que en ETA*”.

Hala ere, ETA-ren bi zutabe aztertzen ditu: *el sentimiento independentista* eta *el marxismo revolucionario*.

Espainiako estatuaren batasun nazionalaren zaindari sentituz nonbait (Konstituzioak manatzen baitio eginbide hori) zera dio: “*El primer parámetro es el sentimiento independentista . Existe. A nosotros nos puede parecer una aberración histórica y un absurdo lógico. Pero es verdad subjetiva en quien lo*

---

<sup>9</sup> Fernando Rueda / Faci Peñate / Antonio Fernández, *Agentes del servicio secreto ocupan los puestos clave del Ejército* in TIEMPO, 21/02/1994, pp. 42-45. Ikusi baita ere: Fernando Rueda, *Uno de cada cinco generales en activo espío para Franco*, in:TIEMPO, 18/01/1993, pp. 26-30. Cassinello-ri buruz berririk eman zuen orobat El País, 22/07/1984: “*los ultras le acusaron un día de ser el inspirador del crimen de Atocha. Los etarras dicen hoy que es el jefe de los GAL (Grupo Antiterrorista de Liberación)*”.

siente." Eta, bere ustez, horren iturburua Arana-Goiri-rengandik datorren abertzaletasuna da, garai horretan EAJ-PNV-k gorpuzten duena: *"Punto de especial trascendencia en la medida del sentimiento independentista lo constituiría la determinación de la actitud del PNV. Históricamente, en ese partido siempre han coexistido dos tendencias: la maximalista, que reclama simplemente la independencia y la de los posibilistas, partidarios de aceptar la legalidad que permitiese obtener, como un primer objetivo, un status autonómico en el seno del Estado Español."*

Eta ondoren bigarren zutabeari heltzen dio: marxismo-leninismoari. *"El segundo parámetro es el componente marxista revolucionario. {...} hay un fuerte componente marxista en ambas ETAs, así como en HB, pero habría que matizar ese aspecto, pues los datos de FOESSA y de la Cámara de Comercio de Bilbao demuestran que las clientelas de estos grupos son predominantemente autóctonos, por lo que hay que considerar en ellos al marxismo como adherencia y al independentismo como sustancia. En esa coalición, ANV no tiene nada de marxista; ESB es socialdemócrata y HASI es un conglomerado nacionalista, con santones como el difunto Monzón, al que sería absurdo reputar como tal."*

Eta hara nola definitzen duen ETA eta bere estrategia oro, abertzaletasunaren ezinbesteko ondorio bezala: *"ETA nace en 1953, bajo el nombre de EKIN de una escisión de las Juventudes del PNV. Este es un dato inicial archisabido. Importante en cuanto es el **componente nacionalista, independentista, el primero que aparece y el que moldea la sustancia de la organización, sobre la que se adhieren componentes marxistas y del catolicismo revolucionario.** Pero nace rompiendo con el modelo político en que se genera el P.N.V., y dispuesta a buscar su propio camino al andar y sometida a un creciente proceso de marxistificación iniciado en 1963 cuando se fusiona con una rama del P.C. (m.e.). No obstante, hay que indicar que **este proceso se produce más ante la necesidad de copiar un modelo revolucionario, ya probado, que como consecuencia de una profundización ideológica.** Da la impresión que sus dirigentes copian trazos de Mao, Lenin o Castro según le conviene a cada propósito concreto, todo ello adobado con más de una pincelada de Teología de la Liberación tercer-mundista y clerical"*<sup>10</sup>.

---

<sup>10</sup> ETA-ren izanmuina abertzaletasunak -PNV-ren berdin-berdinak azken batean- osatzen duela tinkoago uzteko, eraskinetako baten honela dio: *"A lo largo del coloquio se ha ido manifestando la necesidad de ampliar las razones por las cuales al hablar de la ideología de ETA me he referido 'al independentismo como sustancia y al marxismo como adherencia'. La razón de esta conclusión la baso en los siguientes extremos:*

1. - *El testimonio de personas representativas dentro de ETA, como Teo Uriarte, en sus declaraciones a Muga y Pertur en Hitz, para quienes el carácter comunista de alguno de sus miembros no presupone el carácter general de la organización. Decía Pertur: 'hay que hacer constar que el hecho de que comunistas militen en ETA no significa que esta organización sea un partido comunista, ni la transforme en ello. ETA, qué duda cabe, es una organización de clase, pero no toda ella es comunista. Más aún, los que así nos definimos ni siquiera tratamos de obrar en este sentido. Yo milito en ETA porque entiendo que en su seno hay una opción para una acción comunista abertzale, como hay lugar para otras opciones no definidas. Y finalmente, milito en ETA*

Aipamen guzti hauek bere luzean emateak badu garrantzirik, ondorioak ondo ulertu ahal izateko:

- Abertzaletasunari hegoak zabaltzearen uste hutsa, terrorismoari haizea ematea da.
- Abertzaletasunari lur ematea beste biderik ez dago, Espainiaren arazorik larriena konpondu nahi bada.

Hara Cassinello-ren hitzez esanda: *"Todo movimiento revolucionario parte de un planteamiento defensivo, de una situación estimada intolerable {...}. El problema es si esa situación intolerable existe realmente, si se trata de una sensación inducida que parte de datos falsos o si, con más probabilidad, se parte de un proceso de concienciación que convierte en motor de la acción a hechos con los que se convive naturalmente sin inducir a nada. {...} Si resumimos lo anteriormente expuesto encontraremos:*

- \*Una situación compartida por toda la población.*
- \*Un proceso de concienciación que hace sentir esa misma situación como intolerable.*
- \*Una valoración subjetiva que convierte esa sensación en motor de rebeldía para unos pocos."*

---

*porque no sólo da cabida a hombres de pensamiento comunista, sino porque es el mejor marco para participar en una política proletaria vasca'.*

- 2. - La Historia de ETA, desangrada en continuas defecciones de grupos atraídos por distintas concepciones marxistas {...}.*
- 3. - La lectura penosa de tanto comunicado en los que brilla por ausencia 'el análisis concreto de una realidad concreta', síntesis de la crítica marxista.*
- 4. - La tremenda contradicción existente entre el nacionalismo pequeño-burgués y el internacionalismo proletario, de imposible conciliación en una síntesis dialéctica.*
- 5. - La opinión que de HB tiene el pueblo vasco, para el que esa coalición política es claramente independentista y dudosamente marxista {...}.*
- 6. - Las críticas a ETA surgidas en ETA pm y EIA, con razones próximas para conocer y que sistemáticamente niegan el carácter marxista y revolucionario a los primeros.*
- 7. - Un criterio que no debe abandonarse, cuando se analiza la ideología de un grupo de esta naturaleza, es el efecto 'feed-back' de la revolución por el revolucionismo, el hecho, constatado, de grupos revolucionarios en marcha por la propia inercia de la revolución, separados de los planteamientos ideológicos que impulsaran sus primeros pasos. ETA creó sus propio mito de liberación nacional y social, que al final convierte en verdad subjetiva y razón de lucha, y así no se muestra dispuesta a aceptar un cambio de situación social y política que invalida todo su planteamiento lógico. Se ha anclado en su propia historia y es incapaz de percibir las diferencias existentes entre el momento de su nacimiento y el presente. ETA hace mucho que pasó del análisis crítico a la tautología."*

Cassinello-k kategorikoki esaten du abertzaletasuna dela kontzientzia subersiboaren eragile: *"Ninguno nace con la conciencia crítica de la 'opresión nacional' ni de la 'opresión de clase' esgrimida como pretexto permanente de rebeldía"*,

Eta hona hemen bere epaia: *"Mientras no se corte ese germen (abertzaletasuna edo nazionalismoa alegia, f.g.) seguirán apareciendo nuevas generaciones de jóvenes dispuestas a dejarse enrollar en la sangrienta aventura, y seguirá el problema. La fanatización es progresiva, dejar libres los primeros escalones para tener que buscar, después, al hombre armado de metralleta, es una temeridad."*

*Nosotros pretendemos recuperar para España a la totalidad de la población. Ni buscamos un apartheid ni queremos eliminar a la población de otra raza, y ese empeño, que es el más difícil, es la única victoria posible."*<sup>11</sup>

Cassinello-k *lehenengo mailak (los primeros escalones)* bezala aipatzen dituenak Suarez-ek eta Garaikoetxea-k bideratu zuten Gernikako Estatutuarekin lotzen ditu, hiru urte beranduago azaldu zuen beste txosten batean<sup>12</sup>: *"El Estatuto, me arriesgo a interpretar, nació como la intuición de un punto medio, una síntesis, entre las tesis del separatismo y la antítesis del centralismo unitario. Se suponía que entre ambos extremos pudiera existir un punto, sin que fuera precisamente el punto medio, en el que el nivel de insatisfacción de los extremos fuera tolerable. Dudo que hubiera un estatujista puro; por eso, los que en él se asentaron lo hicieron, siempre, con la vista puesta y la intención tendida hacia el extremo. Nació y creció como punto de desgarró, en lugar de como lugar de convergencia"*<sup>13</sup>

Hain zuzen, abertzale Gernikazaleek beren jatorrizko iritziei eta jarrerrei uko nabarmenik ez ematean ikusten du arazoa. Bere iritziz, egoera hori aldatu behar da lehenik, gainontzeko arazo guztien iturburua horixe delako: *"Lo primero es resolver el dilema Estatuto-Constitución. {...} ¿Qué precio pondría el PNV al reconocimiento formal de la Constitución? ¿Se ha intentado saberlo? Desde luego, si prefiere seguir hablando del Estado, en lugar de España, si sigue refiriéndose al 'ordenamiento jurídico vigente' en lugar de a la Constitución y si continúa con su pretendido*

---

<sup>11</sup> Ibid.

<sup>12</sup> Andrés Cassinello Pérez: *"Hablemos de terrorismo"*, I Congreso de Sociología Militar Iberoamericana (osorik emana argitara in: ABC, 1985/09/24). Cassinello ordurako General Jefe del Estado Mayor de la Guardia Civil genuen eta ABC-k (egun bereko editorialean) zera zioen: *"No podemos pasar sin un juicio editorial el informe del general Cassinello, uno de los más reveladores documentos que a nuestro juicio se han hecho públicos en España desde la restauración de las libertades. El general Andrés Cassinello es jefe del Estado Mayor de la Guardia Civil y hay que considerar que sus criterios no son opiniones particulares, sino puntos de vista establecidos en el mando militar"*

<sup>13</sup> Bertan

*protagonismo internacional, más nos vale seguir donde estamos, continuar con la tensión y el enfrentamiento en los objetivos mismos y así eludir el planteamiento abierto de la lucha por los objetivos máximos”*<sup>14</sup>.

Garbi adierazten du Cassinello-k ez duela inola ere onartuko Estatutuaren eranskina (*ordenamiento jurídico vigente*), ez eta Estatutu horren jatorrizko bilakaera, abertzale Gernikazaleek abertzale izateari uko egiten ez dioten bitartean, Benegas-ek ere hitzez-hitz adierazten duen bezala.

### **José María Benegas**

Cassinello-k “*ETA Y EL PROBLEMA VASCO*” izeneko txostena argitarara eman zueneko urtean lortu zuen PSOE-k Espainiako Gobernuaren ardura eta gaur arte dirau ardura horren erantzukizunarekin. PSOE-ko burukiderik erabakitzaileenetakoa (*euskal arazoa* deitzen zaionari dagozkionetan) José María Benegas izan da, noski. Eta bere idazlan bat ekarri nahi dugu gogora, han erakusten baita PSOE-k ordutik honantz izan duen jarrera eta jokabidea euskal arazoarekiko, oro har, eta abertzale gernikazaleei begira, bereziki.

Benegas-en hau, 1984.eko uztailean argitarara emandako azterketa da, baina bi urte lehenagotik PSOE-k berak ere martxan jarritako estrategiaren zergatiak argitzen dituena<sup>15</sup>. Alde batetik gogor salatzen du Suárez Presidentea, Estatutuaren hitzarmena egiterakoan, “*abertzaletasuna mutur mintzetatik lotzeko*” gauza izan ez zelako: “*Los nacionalistas rechazaron con virulencia la Constitución de 1978 y por tanto algo tan esencial en ella como la unidad de España. Sin embargo, aceptaron un Estatuto derivado de la propia Constitución que poco antes habían repudiado, aunque se empeñen en otorgarle el carácter de Estatuto pactado de pueblo a pueblo con cesión mutua de soberanías. Los nacionalistas avanzaron un trecho con respecto a sus objetivos últimos, que ahora comienzan a desvelar sin tanto pudor ni recato*” {...} “*Por el contrario, Suárez no aprovechó la ocasión para embridar el nacionalismo vasco supeditando el acuerdo estatutario alcanzado a la aceptación pública y solemne de los nacionalistas de la unidad de España y de la Constitución del Estado para combatir el terrorismo de ETA. Al Estatuto le faltó un documento ad hoc en el que, recogiendo los anteriores principios, hubiera sido firmado por el presidente del Gobierno vasco y por su propio partido. Suárez dejó escapar aquella ocasión, que dudo que se vuelva a presentar en la historia futura*”<sup>16</sup>

Eta Benegas-ek gogor salatzen du EAJ/PNV Estatutuaz baliatuz Estatuarekiko konfrontazioa areagotu duela, eta, ondoren, garbi dio “*euskal arazoak ez duela konponbiderik*”, baldin-eta abertzale Gernikazaleek beren “*azken helburuak aldatzen ez*

---

<sup>14</sup> Ibid.

<sup>15</sup> CAMBIO16-ek argitarara emana eta gero EL CORREO ESPAÑOL-ek 1984/07/26an berreman zuena

<sup>16</sup> Ibid.

*ba dituzte" edota bestela "gehiengoa" izateari uzten ez badiote. Hona bere hitzez esanda: "Y aquí reside también el error de quienes a la hora de analizar el problema vasco tienden a culpar al Gobierno de la nación de que el mismo no se resuelve, sin percatarse de que mientras el PNV no rectifique sus postulados y acepte la unidad de España y la Constitución, o bien el PNV deje de ser el partido mayoritario de Euskadi, el problema vasco no tiene solución. {...} Algún día, no sé cuándo, pero algún día, algún presidente de algún Gobierno de España, tendrá que dirigirse a los nacionalistas anunciándoles con toda solemnidad ¡hasta aquí hemos llegado!. En tanto esto no se produzca, seguiremos hablando y escribiendo sobre el problema vasco y nuestro futuro, el de los vascos, seguirá siendo una incógnita".*<sup>17</sup>

Hurrengo urteko otsailean, Garaikoetxea Lehendakaria bota ondoren, DIARIO-16 egunkariak *"Euskalerrian burutu zen norabide aldaketa"* argitu asmoz, honako izenburua zekarren artikulua eskaintzen zuen: *"ALGUIEN HA DICHO ¡BASTA!"*<sup>18</sup>, aditzera emanaz *"goiko azpijoko gogorrak"* izan zirela bitarteko.

Benegas-en aipatu idazlana bere osoan irakurri eta Cassinello-ren aurreko biek konpara lezakeenak, garbi ikusiko du zer-nolako baterapen handia duten biak oinarrizko diagnostikoan eta baita ere jokabiderako irizpideetan: nazionalismoaren erne muinak bizirik eta indarrean badirau, ez dago ezer egiterik; nazionalisten eskutan legokeen Gernikako Estatutua bere azkenetaraino bilakarazteak ez du ezertarako balio, baldin euskal arazoa konpondu nahi bada. Beraz, nazionalistak eta beren eskutan legokeen Gernikako Estatutua, biak lotu behar dira eta erabat lotu ezin badira, ahalik eta aterik gehienak itxi.

### **Luis María Ansón**

Luis Maria Ansón, alderdi jakin bateko ordezkari edo burukide bat baino gehiago, *estatu-gizon espainiarra* da batez ere. EFE berri-agentziako presidentea izana, Borbon-go Juan-en Informazio Idazkaria ere bai eta azken urteotan ABC-ko zuzendaria.

Diario 16 egunkariak *"ALGUIEN HA DICHO ¡BASTA!"* aldarrikatu zuen urte berean eta bizpahiru hilabete beranduago idatzi zuen L.M. Anson-ek ABC-en, *"ESPAÑA, ESPAÑA"* izenburua daraman artikulua (1985/04/21). Idazlan horren mamia jasotzeko bere osoan irakurtzea baino bide laburragorik ez dago, baina pasarte batzuk bakarrik aukeratuko ditugu azkarrago ibili nahi duenari bidea mozteko:

Gobernu Sozialistak *Espainiaren batasunaren eta bere banderaren* alde egindakoak goraiatu ondoren, baina aldi berean ETA-ren eta PNV-ren estrategia baterakorra salatu ondoren Euskal Herriaren independentziari begira, honela dio: *"Pero*

---

<sup>17</sup> Ibid.

<sup>18</sup> DIARIO-16, 1985/02/04

*el problema es grave y hay que analizarlo con los nervios tranquilos y la mente despejada.”*

Eta azterketa hori zertxobait xehatu ondoren, honela darrai: *“Ante esta situación de poco valen, -aunque sean estimables- las declaraciones y las actitudes retóricas sobre la unidad de España. El Gobierno Socialista ha demostrado hasta ahora carecer de imaginación y dinamismo para agostar las siembras de Cain, para enfrentarse seriamente con el desafío que desde las ikastolas, la tribuna pública, la subversión y el terrorismo han lanzado los independentistas y la gran potencia que les protege.”*<sup>19</sup>

L.M. Anson-ek *“imaginación y dinamismo”* lituzken plan baten oinarriak-edo aurkezten ditu ondoren: *“Frente al desafío independentista hay que trazar un plan profundo y meditado a corto, medio y largo plazo. Hay que instrumentar, dentro siempre de los límites del Estado de Derecho, una operación global en sentido contrario a la que han padecido los vascos. Hay que dedicar durante dos o tres décadas, muchos miles de millones de pesetas anuales a financiar un plan que se extienda desde el teveo hasta los seriales de TV, desde la ikastola hasta la cátedra universitaria, desde el peonaje hasta el empresariado, desde la divulgación popular a la investigación científica, desde los servicios de inteligencia a los engranajes más sutiles de las Fuerzas de Seguridad. La historia, la verdad y la razón están con la unidad de España, de la que celebraremos en muy poco tiempo el V Centenario. Y es necesario penetrar los tejidos todos del pueblo vasco, de forma sistemática, estudiada y bien financiada, con esa gran verdad histórica del ser español, para construir el techo común de la patria al que se refería Unamuno.”*

Bere plana aurrera ateratzeko eragozpenak aipatzen ditu, bainan garbi dio, estatu operazio bat bezala antolatu behar dela, gobernuak eta oposizioak bat egiten dutelarik: *“El Gobierno y la oposición, en fin, deben ponerse de acuerdo en un plan nacional contra el desafío independentista, con urgencia, sin politiqueos ni partidismos, con el mayor secreto posible, con generosa llamada a los expertos, sin regatear medios, con amplitud de miras y horizontes, sin nerviosismos, con serenidad y eficacia, como corresponden a una trascendente operación de Estado, con el convencimiento de que si no se gana la partida a través del diálogo, las razones y la concordia, volverán a abrirse los labios de una vieja herida y veremos otra vez ensangrentadas las hojas de la historia de España.”*<sup>20</sup>

## **Ondorio gisa**

1982.ena geroztik Espainiako Estatuko buruzagitzaren ordezkari nabarmenek, esan bezala, ETA-k erabiltzen duen indarkeriaren sorburua nazionalismoa dela uste dute. Cassinello, Benegas eta Ansón, hirurak datoz bat honetan. Gerkinako Estatutua

<sup>19</sup> Luís María Ansón: *España, España*, in: ABC, 1985/04/21

<sup>20</sup> *Ibd.*

indarrean ezarri eta handik bi urtetara "terrorismoak" atzerakada nabarmenik egiten ez zuela ikustean, NAHIKOA DIAGU! esan zuten eta baita Estatutuaren ituna ordezkatzeko zuten buruen kontra eraso ere (eta eraso horren baitan *erori* ziren, *bota* zituzten edo *dimisioa aurkeztu - behar ?-* izan zuten), lehenengo, Suárez Presidenteak (1981) eta, beranduago, Garaikoetxea Lehendakariak (1984-1985). Eta bitarte horretan hasitakoak ditugu: Estatutuaren mugak estutzea Oinarri-Lege zentralisten bitartez, autonomiaren aldeko politikaren LOAPATzea eta dagoeneko erabakitako hainbat transferentzia urteetan eskuz ez aldatzea. 1985.a geroztik sartuago dabil PSE-PSOE Gernikako Estatutuaren joan-etorrian, Ardanza-ren Gobernu babestuz lehenengo eta gobernukide izanaz ondoren aldi ezberdinetan, tarte labur batean EAJ-PNV, EA eta EE-ren hiruko gobernuak baztertuta utzi bazuen ere. Gaurtik begiratuta ezin garbiago ikusten da, J.M. Benegas-ek azaldutako bidetik jokatu dutela PSOE/PSE-ko buruzagiek, oinarrietan A.Cassinello eta L.M. Anson-ek adierazietakoekin bat datozelarik abertzale gernikazaleei dagozkienetan.

Estatuko buruzagirik gorenek, aidanez, Gernikako Estatutua gaitzerdi bezala onartu zuten, terrorismoaren kontrako borrokan euskal gizartearen laguntza lortzeko amu bezala alegia, ez ordea euskalerritarren erabaki demokratikoari zor zitzaion erantzun demokratikoa zelakoan. Eta Estatuko buruzagirik gorenek, nonbait, terrorismoaren benetako iturburua abertzaletasuna zela diagnostikatzean, abertzale gernikazaleen eskutan zegokeen Gernikako Estatutuaren bilakaera zapuztea erabaki zuten.

### 3.2. ETA-ren jarraiko ezker abertzalea eta Gernikako Estatutua

ETA-ren jarraiko ezker abertzalea bi joera ezberdinetan banatu zen, Franco hil osteko igaraldiari begira: bata ETA(pm)-EIA-EE eta bestea ETA(m)-HASI-HB. Bi joera horietako buruzagien artean, halere, oinarritzko baterapenik bazegoen ***ideologiari, helburuei eta estrategia orokorrari zegokionean***. Beren arteko bereizketak, banaketak eta zatiketak, bestalde, ***estrategia sozialistaren erritmoak era ezberdinetara ulertzean*** zuten arrazoi nagusia eta, ondorioz, baita borrokaren antolatzeko ***egituren aukeran ere***. ***Erritmo ezberdinen*** auzi-mauzia da, hain zuzen, erreforma-etena, Gernikako Estatutua - KAS Alternatiba Taktikoa eztabaidarekin lotuta dagoena.<sup>21</sup>.

<sup>21</sup> ETA-ren baitan militarren eta poli-milien arteko banaketaren arrazoioak etzirela ideologikoak eta estrategikoak izan, baizik egiturazkoak eta taktikoak, ETA(m)-ak berak ere eman izan du aditzera behin baino gehiagotan: “*Duela bi urte -aitortzen zuen 1976.ean- eta nahiz eta helburuei eta estrategia orokorrari zegokionean bat etorri, ETA bi zati egin zen {...} Ikuskera ezberdina genuen erakundea antolatzeko erari eta herri borroka artzen dituen berezitasunak bideratzeko berezitasunei zegokionean eta hau izan zen zatiketaren benetako arrazoa Batzuek pertsonalkeriaren ondorio zela zioten, sinplekeria lotsagabez. Hau berbera zioten, gure erakundearen eta borroka armatuaren desegitearen azalpentzat ikusi nahi zutenak zatiketa hura. Baina benetako arrazoa hontan zegoen: ETAK askatasun nazionalerako harturiko estrategia sozialistaren erritmoak era ezberdinetara ulertzean*” (“*Pero la excisión causada por las diferentes opciones estructurales tenía como razón de fondo la diferente comprensión de los ritmos que había de seguir la estrategia socialista de liberación nacional adoptada hacia años por E.T.A. Eran dos opciones que habían de pasar por el tamiz de la experiencia*”) ZUTIK 67, 1976-ko azaroa, 4-5 o. Ikus orobat, ZUTIK 68 (1977-eko uztaila), 17 o., bertan esaten baita berriro “*estruttura arrazoiak*

### ***Ideologiari, helburuei eta estrategia orokorrari zegokionean baterapena***

Bereizketen garrantzia ohar emateko beharrezkoa da dituzten baterapenetaz ondo jabetzea. *Ideologiaz, helburuz eta estrategiaz* duten baterapen zenbait azalduko dugu bada lehenik, labur bada ere.

ETA-ren jarraiko bi adar nagusi hauetako buruak marxista-leninistak dira Ideologiaz. Euren sortzen dituzten Alderdi Politikoak (EIA eta HASI) ere, halaxe definitzen dira:

EIA-k honela aurkezten zuen bere burua: *"Art. 1.- EIA, nacido como decisión de la VII Asamblea de ETA (político-militar) aspira a ser el partido de vanguardia de la clase obrera y de las capas populares cuyo objetivo es la Revolución Socialista, es decir la toma del poder político y económico por parte de los trabajadores vascos y la consecución de la Independencia Nacional de Euskadi en tránsito a la sociedad comunista. Art. 2.- EIA es un partido marxista comunista que se basa en el materialismo histórico y dialéctico como método de análisis para transformar la realidad específica de la lucha de clases en Euskadi, y acepta las grandes aportaciones de los teóricos marxistas del movimiento obrero mundial [...]"*<sup>22</sup>

Eta antzera H.A.S.I.-k: *"Nuestro objetivo último es la consecución del comunismo, fase última o culminante de la evolución histórica, donde se habrá superado el estado de necesidad, y se habrán extinguido, en consecuencia, la propiedad, el estado (la organización basada en la centralización del poder o autoridad) y las clases sociales"*<sup>23</sup>; *"... reconocemos que el marxismo en todo su profuso cuerpo doctrinal teórico-práctico y la aportación posterior del leninismo son nuestras fuentes definitivas de teoría y práctica política en todos sus desarrollos: económico, social, jurídico, etc. Es decir que todos los principios del marxismo que han sido enunciados hasta aquí deben ser asumidos por nosotros"*<sup>24</sup>.

Diotena besterik ez diote adierazpen hauek. Ez diote, adibidez, ETA bietako kide denak komunistak direnik eta, are gutxiago, euren zuzeneko eta zeharkako jarraitzaileak (HB-ri edo EE-ri botoa damaiotenak esaterako) marxista-leninistak direnik. Diotena da, baina, ETA bietatik sortutako bi Alderdi eta Mugimendu Politiko hauen buruzagiak burubidez, Ideologiaz eta helburuz, marxismo-leninismoan oinarritzen direla eta gizarte

---

*zirela eta*" gertatu zela "zatiketa", "*ideologia eta jokabide bereko erakunde bi*" sortaraziz. Gaurdanik begiratuta, arrazoi berdinak izan zituzten gero banaturik bakoitzak bere bidetik jarraitzeko.

<sup>22</sup> E.I.A. *Resoluciones del Congreso (14-17 JUNIO, 1979)*, Bilbao 1979 (Autor-Editor: Mario Onaindia)

<sup>23</sup> H.A.S.I., Ponencia de Organización, III Congreso, 1987

<sup>24</sup> H.A.S.I.: *Bases ideológicas*, marzo 1978, III, 1.6.3.

komunistaren eraikitzea dutela beren amets<sup>25</sup>. Baterapen horren ondorioz zetozen bat *estrategiari zegokionean* ere. Eta gure gaiari begira garrantzia berezia duelako, bi ETA-ren jarraiko ezker abertzaleen *independentziaren aldeko estrategia sozialista* aztertuko dugu laburki.

Hasteko esan behar da, ETA-ren jarraiko buruzagi politikoek eta ideologoen *independentziari* buruz duten jarrera argitzeko erabili ohi duten hizpideak leninismoaren eta maoismoaren tradizioan dituela bere sustraiak. Beraz, tradizio horren berririk ez duenak nahiko lan izango du *independentzia, abertzale, nazioa, nazio askapenerako borroka ...* bezalako hitzek eta esaldiek eurentzat duten esanahia ulertzeko.

Hona hemen, adibidez, zer esannahia duen independentziak EIA-ko buruontzako: *“E.I.A. es independentista porque aspira ser el partido de la clase obrera vasca, y porque como tal partido lucha contra el capitalismo. Toda independencia, sea cual sea la forma política que adopte presupone la no dependencia de un pueblo de ninguna fuerza ajena a sí mismo. Pero el factor que ha generado históricamente la dependencia de unos pueblos con respecto a otros -y en el seno de un mismo pueblo, la dependencia de la gran mayoría con respecto a una minoría- ha sido el capitalismo. Por ello, hoy, en Euskadi, luchar contra el capitalismo es luchar por la independencia”*<sup>26</sup>.

Ikusgune horren arian, *aberria* ere klase-borrokarako barruti autonomo bat besterik ez da, hain zuzen klase-borrokaren bilakaera erreboluzionarioa areagotu lezakeen neurrian onartu eta bultzatu beharrekoa<sup>27</sup>. Bi urte geroago egin zuten

---

<sup>25</sup> EKIN bezala elkartu ziren abertzale haiek sortu zuten ETA, nondik-nora eta nola bideratu zen ideologiz, helburuz eta estrategiz marxista-leninistak diren buruzagiek zuzendutako mugimendua izatera, ETA-ren baitan sarritan aztertu den gorabehera da. Ikus adibidez: E.T.A. (Euskadi ta Askatasuna), in: DOCUMENTOS Y, 12. t., 82-94. Editoreak esatera, Beltza-k 1969.ean argitara ematekoa zen (bainan argitaratu etzen) liburu batetarako idatzi zuen txostena da hori. Hain zuzen dokumentu esangarritsua da, ETA-ren ordurarteko bilakaera laburbiltzen baita, ondorio honetara iristeko: *“... aún no hay en Euskadi un partido marxista-leninista vasco”*, baina jarraian zera azpimarratuz: *“ETA ha educado a amplias masas de trabajadores e intelectuales que pasarán a constituir ese partido dentro del Frente Nacional. Pero la transformación de los sectores proletarios de ETA en ese Partido supondrá un verdadero salto dialéctico que aún no está dado”*. Eta bere azken hitzak hauek dira: *“El momento es difícil: un grupo de marxistas-leninistas de ETA hemos propuesto ya nuestras concepciones. - Unificar a las amplias masas mediante el Frente Nacional { ...} - Paralelamente, dar la dirección al proletariado, creando el partido Marxista-leninista donde el pueblo trabajador se junte, se eduque, se temple {...} - Prepararse para la guerra popular prolongada, incrementando y elevando las actividades del Frente Militar”*. Franco hil osteko aldian, ETA-ren bi adar nagusiak (pm / m) horixe egiten saiatu ziren, baikoitzak bere Alderdi Komunista eta bere Frente erakundea sortuz, bi horiek borroka armatuarekin bilbatuta erabiltzeko.

<sup>26</sup> E.I.A., *Manifiesto de presentación*, 1.977

<sup>27</sup> Aipatu Manifiesto de presentación irakurtzea aski da, hori egiaztatzeko. Eta hori bera adierazten du garai hartan beren ordezkari zuten F.Letamendia jaunak: *“Un pueblo que quiere ser independiente no es jamás separatista. Porque la lucha por la independencia no es la lucha de pueblo contra pueblo sino la lucha de todos contra el enemigo común, la oligarquía, por eso, la lucha del pueblo vasco es la misma que la de los obreros del extrarradio madrileño, la de los mineros asturianos, la de los campesinos andaluces”*. (F. Letamendia. Discurso ante el Pleno del Congreso. Mayo de 1.978). Gehigarri bezala nahi dituenak, hona hemen beste hau: *“Hay que realizar una serie de matizaciones. Si nos dejamos*

Kongresuan ere ez zioten besterik: “*De las distintas concepciones de independencia que existen actualmente en Euskadi, sólo una es de clase: aquella que une la independencia a la revolución socialista, entendida ésta como la ruptura {...} y la destrucción del aparato político-militar del estado español y francés*”<sup>28</sup>.

Ez dago alderik oinarriko ikuspegi honetan HASI-ren eta EIA-ren artean, ETA(pm) eta ETA(m)-ren artean ere ez zegoen bezala. Biek ere, azken batean, Lenin-ek hartu zuen *autodeterminazioaren* aldeko estrategiaren printzipio ber-berak Euskalerriko aldarteari egokitzen saiatzen baitira<sup>29</sup>. Printzipio horien arabera, gizarte baten baitako klase borrokaren eta nazio arazoaren arteko harremana, muiaren edo edukiaren eta adierazpenaren artekoa bezala da, iraunkorragoak izan ohi diren sustraien eta sarriago aldatzen diren hostoen artekoa bezalakoa.

Arazo hau argitzeko -beste zenbaitentzat aidanez iluntzeko- erabili ohi duten hizpideak baditu hainbat kontzeptu bereizi: *erroko ezbaia* eta *ezbaietan buru dena*; *klase borrokaren edukia* eta *bere kanpoitxura edo adierazmodua*. Gogakizun hauen bilakaeran Mao-k egindako ekarpenak erabili ohi dituzte ETA-ko ideologoek.

Gizarte baten -edozeinen, baita euskal gizartearen- berezko izatena errotik edo sustraitik erabakitzen duena munduaren gaurko egoeran klaseen arteko borroka denez, horretan du Euskalerrriak ere bere erroko arazoa, erroko ezbaia edo kontraizatea. Horrek erabakitzen du, beraz, ETA-ko buruzagi ideologoek ustez, egun Euskalerrriak bizi dituen arazo guztien oinarriko muina Garbi diote, adibidez, HASI-koek: “*En la realidad social vasca, como en todo sistema capitalista, la contradicción básica, raiz, es la establecida*

---

*encasillar en un determinado tipo de nacionalismo que ha sido siempre burgués y que es separatista, nos veremos calificados de separatistas y burgueses y NOSOTROS SOMOS INDEPENDENTISTAS Y ANTISEPARATISTAS. Justo al contrario del PNV que es separatista y cuya táctica en este momento no es independentista". Eta dionaren esanahia are nabarmenago adierazteko honela darrai: "Esto no cabe en el PNV, separatista, un partido que piensa que la suerte del pueblo vasco nada tiene que ver con la de los otros pueblos, pero así y todo no es independentista porque siendo un partido burgués no quiere romper amarras con la burguesía del Estado. Es absurdo pretender una entidad política autosuficiente. Es utópico y negativo. NADIE PRETENDE UNA INDEPENDENCIA AUTOSUFICIENTE. Ese es un concepto burgués. Nosotros, e insisto en ello, pensamos que Euskadi sólo podría ser independiente en un estado socialista español. Nada, pues, de Estados "independientes" burgueses con aduanas y alambradas. Esas fronteras son hechos burgueses impositivos. Habrán de ser los diversos pueblos del Estado los que establezcan sus convenios y conveniencias". (F. Letamendia, Cuadernos para el diálogo, n. 265, 27-V-78).*

<sup>28</sup> *Resoluciones del Congreso de EIA, 1979, o. 54*

<sup>29</sup> Lenin-en autodeterminazioari buruzko teoria zer-nola erabili Euskalerrriari begira, sarritan aztertu zuten ETA-ko ideologoek, adibidez Krutwig-ek. Ikus: **LA CUESTION VASCA** (1967). Liburu honen edukia jaso dago in: **DOCUMENTOS Y** ( 12. t. , HORDAGO) eta honela aurkezten du J. Estevez-ek: “*fue publicado por primera vez en la Editorial MUNDO OBRERO REVOLUCIONARIO (escisión del PCE m-l) en 1967. La segunda edición es (...) la realizada por ETA-Askatasuna ala hil a comienzos de 1971*” (o.c., p.160).

entre capital-trabajo”<sup>30</sup>. *“La contradicción básica, raíz de todas las contradicciones se establece entre la clase obrera y la burguesía. En última instancia, los intereses de una u otra clase son las que determinan el carácter y contenido de la lucha. La mayoría que vende su fuerza de trabajo. La minoría que lo articula en función de sus intereses”*<sup>31</sup>

Hori izanik erroko arazoa edo ezbaia, horretxen askabideak erabakiko du gizarte horren geroa<sup>32</sup>. Hain zuzen, baina, askabide hori ebakitzeko, gizarte jakin bakoitzean eta bere etorriko ekitaldi bakoitzean erroko arazo hori *zer-nola adierazten* den, zehatz-mehatz aztertu beharreko kontua da. Izan ere, EIA-ko buruek ziotenez, *“para los marxistas, cuando hablamos de fases de la revolución, no se trata de imaginarnos cómo se dará la revolución, ni de hacer política ficción, sino de analizar cuáles son las contradicciones de la sociedad, cuáles las posturas de las distintas clases en lucha, y de acuerdo con ello **analizar dialécticamente cuál ha de ser la contradicción principal y durante cuánto tiempo**, y por tanto qué tipo de alianzas se producirán entre las distintas clases y sectores de clases, y por tanto entre sus representantes políticos.”*<sup>33</sup>. Baina, HASI-ko buruek esatera, ezbaietan buru zein den zehaztea ez da eginibide batere erraza: *“Para establecer la **contradicción principal, de cada momento**, debemos tener presentes el cúmulo de determinaciones: Lucha contra la opresión nacional, historia de Euskal Herria, su situación en el Occidente Europeo, formación económica explotadora, lucha contra la explotación”*<sup>34</sup>. *“En una formación social concreta, el antagonismo básico subyace, en un complejo de contradicciones. En base a la **coyuntura política** se conformará en enfrentamiento, y se definirá la **contradicción principal**. El análisis global de la realidad social, establecerá la línea de división entre aliados del Pueblo y sus enemigos, en cada momento de lucha”*<sup>35</sup>

Ekitaldi jakin bakoitzean ezbaietan buru zein den zehatz-mehatz erabakitzeak, sekulako ondorioak ditu *erreboluzioaren erritmoari* eta, ondorioz, *indarren antolaketari* begira. Honetan bereiztu ziren ETA(m) eta ETA(pm). Ezbaietan buru dena nazio-arazoa dela erabakirik ere, ordea, ezta sekula ahantzi behar, hori ez dela sekula arazo muinaren erroko edukia, baizik bere aldi bateko adierazpena soilik. Honetan ere bat datoz ETA-ren bi adarretakoek eta baita beren jarraiko bi Alderdiek ere. ETA-ren baitan 70.az geroztik nagusiturik zegoen jarrerari jarraitzea besterik ez dute egin, ordurako

<sup>30</sup> H.A.S.I., *Bases ideológicas*, 1978

<sup>31</sup> *Ibd.* III.2.4.1.

<sup>32</sup> *“EIA lucha por la desaparición de una Euskadi capitalista y la consecución de una Euskadi socialista (...), para lo cual hace falta eliminar la propiedad privada de los medios de producción que, de por sí, no son privados, sino colectivos.”* (E.I.A.: *Manifiesto Presentación*, abril 1977).

<sup>33</sup> E.I.A., *Resoluciones del Congreso de E.I.A.* de 1979 (14-17 junio), Edit. por Mario Onaindia, Bilbao 1979)

<sup>34</sup> H.A.S.I., *Bases ideológicas*, 1978, 1.3.24.

<sup>35</sup> *Ibd.* III.2.4.4.

bereganatua bai zuten Mao-ren aburu hura: *zapaldurik dauden herrietan, klase-borrokak nazio askapenaren itxura edo tankera hartzen duela*. Lekuko bezala aski da ZUTIK 59.ean, *Alternativa de la tendencia marxista dentro de ETA* izenburuean, argi eta garbi diotena irakurtzea: *"La revolución mundial es una unidad de diversos frentes: el frente de lucha vasco, que toma la forma de luchar por la independencia nacional, con contenido socialista, se une necesariamente a los del resto del mundo. Pero el internacionalismo ha de ser una realidad práctica, y habida cuenta que nuestros enemigos directos son el imperialismo español y francés, y de los lazos que nos unen a los pueblos de esos estados, el verdadero internacionalismo se mide en nuestra unidad revolucionaria con los pueblos de los estados español y francés. Concretando más: ya que la masa principal de la población vasca está en el Sur, nuestro principal campo de acción internacionalista está en nuestra acción antioligárquica con los españoles (castellanos y andaluces), catalanes, gallegos y canarios"*<sup>36</sup>.

*Independentziarena eta abertzaletasunarena* klase borrokaren edukia lukeen zerbaiten estalkia edo azala bezala jotzeak, ez du inola ere esan nahi leninista edo maoista batek garrantzirik emango ez dionik azalari. Mao-k erabili ohi zuen adibidez esanda, arrautzaren edukia ezin da txito bilakatu, azala behar baino lehenago hausten bazaio. Abertzaletasuna denean klase borrokaren azala, abertzaletasunaren arazoari irtenbidea ematen dionak erabakiko du klase borrokaren norantzakoa ere. *Burgosko espetxetik* 1971.eko urtarrilaren 1-ean zenbait ETA-ko burukidek Biltzar Ttipiari zuzendu zioten karta ezagun hartan esaten zen bezala: *"... la lucha de nuestro pueblo es -y no puede ser otra cosa- lucha de clases; lucha de clases históricamente conformada en un determinado sentido. Nada existe por encima de la lucha de clases, antes al contrario, todas las demás contradicciones que pueden aparecer -la contradicción nacional en el caso de nuestro pueblo- no son más que consecuencia directa de esta lucha de clases, variaciones en la forma en que esta se manifiesta en cada lugar y en cada momento histórico, variaciones de mayor o menor importancia que determinan su contenido"*<sup>37</sup>. Bainan ondoren azal horretxen garrantziaz zera diote: *"Con esto estamos dando a los intereses cultural-nacionales toda la enorme importancia que tienen dentro de nuestra lucha revolucionaria: son éstos los que con mayor fuerza impulsan la movilización política de nuestro pueblo, son éstos los que ofrecen la base esencial para la unidad revolucionaria de todas las clases populares de Euskadi hasta una vez realizada la Revolución Popular, son éstos en definitiva los que determinan el carácter nacional de nuestro combate. Pero no son en ningún caso suficientes para llenar el contenido de una lucha política"*<sup>38</sup>

Hain zuzen herrigizarte mailan bateragarri gerta zitekeen azaleko eskabide horren aitzindaritzaz nork-nola hartuko zuenak, erreboluziogintzaren *erritmoa* eta *borrokaera ezbardinen antolaketa* erabaki zezakeen. Eta honetan bereizi eta banatu ziren ETA(m)-HASI-HB eta ETA(pm)-EIA-EE.

<sup>36</sup> ZUTIK 59.ean, *Alternativa de la tendencia marxista dentro de ETA*

<sup>37</sup> *Manifiesto de los presos de Burgos*, 1971/1/1, o. 11

<sup>38</sup> *Ibd.*, o. 15

### *Erreboluzioaren erritmoari eta indarren egituratzeari zegokionean bereizketa*

ETA(pm) eta bere sailekoek, herri arazo horren konpontzeko inizatiba hartzearena *erreformako indarrek onar zezaketenetik abiatuz* egitea pentsatu zuen eta borrokaerak ere aukera horretara egokitu zituen <sup>39</sup>. EIA-k Gernikako Estatutuaren alde egiten duen apustua giro honetan kokatzen da.

---

<sup>39</sup> EIA-ko buruek Euskalerrriaren baitako ezbairen artean, aldi bakoitzean buru zein izango denaren bila egindako azterketa ezbardinetan garbi ikusten da beren apustuaren nondik norakoa. Irakurgarri dira horretarako, adibidez, 1979.eko Kongresoan eztabaidatu eta onartutakoak. Hona lekuko batzu in: E.I.A., *Resoluciones del Congreso de E.I.A. de 1979 (14-17 junio)*, Edit. por Mario Onaindia, Bilbao 1979): "*En cualquier caso, la confluencia de intereses entre la burguesía nacional vasca y el resto de las capas populares, incluido el proletariado, en la lucha por las libertades democráticas y el autogobierno y contra la oligarquía, y sus instrumentos de dominación, gobierno, ejército y parlamento incluso, determinará la vida política de nuestro país durante la próxima fase. Fase por tanto en que la contradicción principal estará constituida por el enfrentamiento entre las clases populares, (como son la burguesía nacional y el proletariado) y la oligarquía. Esta fase política durará todo el tiempo de elaboración y de lucha popular por conseguir y luego poner en práctica el Estatuto de Autonomía y las instituciones emanadas del mismo.*" (ibd.)

*"La segunda fase de la revolución vasca se abrirá con la consecución del Estatuto de Autonomía. Desde el mismo momento en que se haya conseguido, y se ponga en práctica, se romperá la confluencia entre la clase obrera y la burguesía nacional. A partir de este momento, la burguesía nacional incluso hará una política que cambiará de naturaleza política a sus representantes políticos. En lugar de hacer, como hasta ese momento, una política propia de la burguesía nacional, hará la política de la burguesía interior, es decir, comenzará su colaboración con la oligarquía, su Estado y el imperialismo, hasta el punto de que no nos parece de ningún modo descabellado hablar del PNV como "posible futuro representante en Euskadi de los intereses de la oligarquía" (como hace Arnasa); es más, nosotros añadiríamos, y del imperialismo, lo cual tampoco quiere decir que desaparezcan todas las contradicciones con la oligarquía y el imperialismo."* (ibd)

*"Durante esta segunda fase, la contradicción principal de Euskadi será la que enfrente, por un lado, a la burguesía interior aliada a la oligarquía y al imperialismo, y por otro lado, a la clase obrera aliada a sectores populares que se haya ganado en la lucha de la fase por las libertades nacionales, o bien sectores que se acercan al proletariado ante el giro dado por la burguesía nacional después del estatuto"* (ibd.).

*"Las fases de la revolución vasca, pues, no debemos entenderlas como etapas totalmente estancas, y como si en la primera fase no existieran contradicciones entre la burguesía nacional y el proletariado y otros sectores explotados. Queremos decir que esa será la situación dominante, la contradicción principal; lo cual sólo quiere decir que otras contradicciones que siguen existiendo ocupan un lugar secundario. Del mismo modo que en la segunda fase seguirán existiendo contradicciones y diferencias entre la oligarquía nacional y el imperialismo y la oligarquía"* (ibd.).

Eta bere azken erabakietan, erreboluziogintzarako erritmoaren ekitaldiak zehaztuz, honela dio laburbilduz: **“FASES DE LA REVOLUCION VASCA:** 1- *La fase que se abre con la aprobación del Referéndum constitucional y se cierra con la aprobación y aplicación del Estatuto de Autonomía, se caracteriza como fase de ofensiva de la burguesía y, por tanto de retroceso de la lucha de masas. En esta fase la institucionalización de Euskadi Sur, aún cuando no sean sino instituciones burguesas, constituye, junto con la lucha por la ampliación de la libertades democráticas, el objetivo prioritario de los revolucionarios vascos.* 2- *En esta fase la contradicción principal está constituida por oligarquía contra las clases populares, incluyendo la burguesía nacional.* 3- *Por tanto, la burguesía nacional y la socialdemocracia pueden jugar un papel progresista, en la medida en que luchan junto con los revolucionarios por el desarrollo de Euskadi como marco autónomo de la lucha de clases, aún a nivel de*

ETA(m) eta bere sailekoek, aldiz, erreforma-ko indarrek onar ezin zezaketen puntuan finkatuz erabaki zuten, herri arazo horren inizatiba bereganatzea: *"En la medida en que la previsiblemente próxima democracia liberal se muestra incapaz de solucionar el problema (problema para la oligarquía española, claro) nacional vasco es de prever que la lucha de liberación nacional seguirá cumpliendo el papel de catalizador del proceso de lucha social de todo el Estado"* <sup>40</sup>.

Bi aukera taktiko zeharo ezberdinak, baina ez hargatik eduki ezbardinaren zerbitzutan eginak, nahiz-eta ondorio ezberdinetara eramanezaketen borroka. ¿Nola konpondu horrelako eztabaida bat leninismoaren eta maoismoaren erakutsien argira? Ekintzaren bidez, praxiaren bitartez: aurrekoen praxiak, norberarenak eta gerokoenak alegia. ETA(m)-koek zioten bezala: *"Eran dos opciones que habían de pasar por el tamiz de la experiencia"* <sup>41</sup>. Dirudenez, aurrekoen esperientziak etzieten gehiegi balio eta beren esperientzia berrira jo beharra izan zuten.

### ***ETA(pm)-EIA-EE bere esperientzian***

Talde hirukoitz honen esperientziak erakutsi du, hartu zuten erreformako bidea hartuz gero, beren indarren egituratzeari eman zioten antolaketa desegokia dela, ez baitu aukerarik eman kale borroka eta erakundeetako borrokaera armatuarekin bilbatzeko. Esperientziak hori erakutsi du, batetik.

Bestalde ez du lortu, abertzale itxurapean beren estrategia sozialistaren edukia garatuko zukeen Gernikako Estatutuaren aitzindaritzza eskuratzea ere. Uste baino

---

*política institucional burguesa. 4- Tan importante como el propio Estatuto constituye la lucha de masas por lograrlo, lo cual permitirá que avance en nuestro país la conciencia nacional entre las más amplias masas, a la vez que esta adquiere un contenido más político. 5- Al finalizar la primera fase con la consecución de un Estatuto de Autonomía, pasarán a un primer plano las contradicciones entre la clase obrera y toda la burguesía de modo que la contradicción principal sea burguesía-proletariado. En esta fase, el partido de la burguesía nacional podría pasar a ser en realidad el partido que represente en Euskadi los intereses de la oligarquía. Proceso que puede darse también en el PSOE-PSE." (Ibd.).*

Inor gal ez dadin bere azken norakoan, hona berrito zer dioten ekitaldi horietako indarren harremanetaz: *1- En una fase de ofensiva de la burguesía, la táctica correcta de los revolucionarios necesariamente ha de ser defensiva, tratando de evitar el aislamiento de la vanguardia de las masas. 2- Tan importante como los propios objetivos políticos a corto plazo que defiende el partido constituyen la meta de que se consolide la lucha popular, que el proletariado se homogenice y vaya poniéndose a la cabeza de las masas populares. 3- Por ello, en la fase actual, el partido de la revolución vasca no ha de buscar alianzas sólo entre los representantes de la burguesía nacional y la socialdemocracia, sino también entre la izquierda revolucionaria. A fin de que la correlación de fuerzas entre los reformistas y los revolucionarios vayan cambiando a favor de estos últimos. 4- El instrumento más adecuado para llevar adelante el acuerdo y la alianza de los revolucionarios vascos, constituye E.E." (Ibd.).*

<sup>40</sup> ZUTIK., 67. zbk (1976.eko azaroa), o. 30, in: **DOCUMENTOS Y**, t. XVI, o. 210

<sup>41</sup> ZUTIK., 67. zbk (1976.eko azaroa), o. 5

indartsuago gertatu bai zaie abertzale historikoaren tinkotasuna, Eusko Legebiltzarraren bigarren legealdirako hauteskundeetan azaldu zenez.

Ordutik aurrera, aitzindaritza emango dien bestelako aukeren bila ibili dira bere buruzagirik behinenak. Azkenaldian, talderik ezagunena (Mario Onaindia buru dutela) PSE-PSOE-ekin elkartu da, Estatutuaren bilakaeraren giltza beren esku hartu nahian, EAJ-ri eta EA-ri kenduz<sup>42</sup>.

### ***ETA(m)-HASI-HB bere esperientzian***

Horixe da, hain zuzen, ETA(m)-HASI-HB ko buruzagi ideologoen ustetan, beren ekintzabidea markatzen duen ezaugarrietako bat: esperientzia berri bat izatearena: inperialismoaren erdigunea den Europa aurreratuko Herrialde industriratu batean entsaiatzen baita zer-nola bilakarazi klase borrokaren eduki sozialistaren zerbitzuan bultzatzen duten nazio askapaerako borroka<sup>43</sup>. Kontzientzia horren lekuko dira adierazpen hauek: *"El caso vasco es hoy una especie de laboratorio, donde el imperialismo, a través del gobierno español e incluso partidos reformistas de la oposición, prueba una serie de medidas con el propósito de conseguir la señalada paz interior, que en el Estado español sería sinónimo de asentamiento del plan de Reforma."*<sup>44</sup> Eta esperimentu horretan beren eginkizuna zer den garbi erakusten dute: *"se ha evitado la consolidación de la Reforma, al menos en Euskadi Sur, (...) se ha logrado la utilización efectiva de todas las formas de lucha y su interrelación -lucha armada, lucha de masas y utilización de la lucha institucional-"*<sup>45</sup>.

Esperimentu horrek aurrera egiten duen neurrian, eredu edo paradigma berri bat sortarazten ari direla uste dute, gainera, Eva Forest-ek dioenez *"Nuestra lucha de liberación es muy importante y constituye un modelo único porque se está llevando en una zona desarrollada del continente europeo, y todas nuestras experiencias -inéditas- se están produciendo en medio de una estructura 'democrática' a la que cuestiona día a día. Formas nuevas de lucha, y formas nuevas y sofisticadas de represión para aplastar esa lucha. Ahí estamos, un foco de vida que irradia vida, que es ejemplo para otros*

---

<sup>42</sup> Gogora beharrekoa da, Mario Onaindia-k beti jo izan duela zorioneko gertakizuna abertzale historikoen mugimendua bitan banatu izana, aniztasunaren ezaugarri delakoan. Baina aldi berean, beti jo izan du erreformaren baitan murgildutako ezker indar guziekin bateratzeko (EPK-kin lehenengo eta PSE-PSOE-rekin gero), hori ere zorioneko gertakizun delako. Hortan erakusten du garbi *abertzale* izatearena izenlaguna besterik ez dela, izanaren izena *ezkerreko* izatean baitu.

<sup>43</sup> *"Es precisamente en el centro imperialista, en el área Europa Occidental, donde surgen los Movimientos de Liberación Nacional y Social de los pueblos oprimidos." "En estos pueblos oprimidos, [...] la Lucha de Clases toma la FORMA de Lucha de Liberación Nacional, por lo que el combate al socialismo pasa, necesariamente, por la plena soberanía nacional."*

<sup>44</sup> Ikus: II Congreso de HASI, *"Euskadi Sur y su tarea en el Proceso Revolucionario Mundial"*

<sup>45</sup> Ibid.

*pueblos del Estado español, y un foco de esperanza para muchos pueblos de Europa sobre los que se proyecta la gran sombra de los Estados.*"<sup>46</sup>

Ezta iritzi hori idazle ahobero batena, aidanez, halaxe uste izan bai dute ETA-ko buruek ere, aspalditik uste izan gainera, 1978-eko maiatza-ekaina **"ETA-k Euskal Herriari"** agirian esaten baidute, berena *"aportación (...) a una nueva teoría revolucionaria"* dela eta, horregatik dela *"un proceso nuevo en el camino revolucionario de los pueblos"*.

Esperientzia horretan zer gertatu den zaharra eta zer berria (erreboluziogintzari begira) ezta, noski, lantxo honetan argitzekoa. Baina bistakoa dena zera da: laboratorio moduan hartutako Euskalerrian beren esperimintugintzan hor jarraitzen dutela NAEM (MVLN)-eko buruzagiek. Aldakuntzak ere nabarmenak izan dira, azkeneko hamasei urteotan. Adibidez, HASI-k utzi dio Alderdi Politiko klasiko bat izateari eta autodisoluzionaren bidea hartu zuen (beste hainbat Alderdi Komunistek bezalaxe). HASI-k NAEM osoari begira zukeen eginbidea (ideologi mailako orobilketa eta bateraketa - homogeneousazioa) beste era batetara burutzen da gaur egun KAS-en baitan. Aldakuntza berri horren zenbait arrasto garbi adierazita daude, adibidez, J. Agirre izeneko kolektibo batek argitara eman dituen zenbait idazlanetan. Aldakuntza horren parekoak dira -ekintzari begira- borrokaera ez bardinen erabiltzeko saiakera berriak<sup>47</sup>.

<sup>46</sup> Eva Forest. *Los augurios sospechosos*. in EGIN, 1986/06/20

<sup>47</sup> HASI-k beste hainbat Alderdi Komunistak bezala autodisoluzioaren bidetik jo zuen aurrera, baina gomendatuz bere kideei jarraitzeko beste era bateko antolamenduz lan ideologikoari. Garai hortan sortutako taldea bat, bere burua J. Agirre bezala azaltzen duena, saiatu da gaurko baldintza berrietara egokitzeko marxismo, lenismoaren, maoismoaren eta, baita, ETA-ren beraren esperientzia eta ekarri teoriko-praktikoak.:

*"Nosotros -que no renegamos del marxismo- tenemos que decir que es necesario su reformulación. Con el bagaje escaso de sus invariantes y procedimientos genéricos, con enunciados y prácticas que estamos en situación de proponer -a través de un lenguaje nuevo y con el método dialéctico de análisis de la realidad- debemos iniciar un nuevo camino en la búsqueda del sujeto político de nuestros días; para, por medio de él, reelaborar la teoría marxista de la fase histórica en la que nos encontramos -a partir del legado fundamental que nos han dejado Marx y Engels- y que no puede ser otra que una teoría del sujeto"* (J. Agirre, *Revisión y Recomenzo del Marxismo*, in EGIN, 1992/01/24) Azalpen honek, baina, ez du alde haundirik ETA-k sarritan egin duenetakoekin, adibidez honako honekin *"Nuestra organización es ideológicamente marxista, entendiendo el marxismo como un instrumento de conocimiento y de análisis de la sociedad. Pero para nosotros lo más importante es romper con los principios dogmáticos y establecer una dialéctica teórico-práctica que configure las líneas ideológico-políticas de nuestro proceso, tanto en su estrategia como en cada una de sus fases tácticas"* (ETA-k, FRIGIDAIRE italiar aldizkariari eginiko adierazpenak, gero EGIN-ek bireman zituenak 1984/07/31)

J. Agirre-ren ondorengo idazlanen muina zera da, hain zuzen: euskal-arazoak bere baitan duen indarra, erreboluziogintzaren zerbitzutan zer-nola jarri. Hargatik uste dute, erreboluziogintzan Euskalerritik saiatu nahi duen edozeinek, jarrera abertzalearen inizitiba burgesiari bere eskuetatik erabat kentzen saiatu behar duela. Burubide horren arabera, Euskalerraren muina, klase-gizartearen adierazgarri behinena den Estatuaren ezeztapen soila -baina erabatekoa- izatera mugatzen da. Hara nola dioten: *"Nosotros postulamos que en el contexto general mundial -y especialmente en Euskal Herria- la contradicción principal de nuestros días es la que enfrenta a las Naciones contra los Estados. Ello se manifiesta de diversas maneras, según el espacio geográfico y político" {...}* *"El Pueblo, figura desestructurada de lo político, es el emblema de la política; es decir, del antagonismo con el Estado. Se constituye en sujeto en cuanto que se configura como la expresión más viva del Proceso de Liberación Nacional en su doble*

Saiakera guztiotan, baina, badago ardatzgune bikoitz bat ezinbesteko baldintza dena: a) herri eskabide utziezinen ordezkari gertatzea eta b) herri eskabideen ordezkartzan aitzindaritza bereganatzea. Horrek eskatzen duena zera da: izatez (ideologiaz, helburuz eta estrategiaz) ezkerrekoa (marxismo-leninismoaren tradiziokoa) ez den inori ez zaiola utzi behar herri eskabideen aitzindari izaten. Hargatik da ezinbesteko baldintza abertzale gernikazaleen aitzindaritza zapuztea edo zapuztaraztea euskalerritarren herri-gizarte eskabideei dagozkienetan. Hargatik zioen HASI-k eginahalak jo behar zirela EAJ/PNV eta EA-ren arteko ezbaiak edo kontradikzioak areagotzen, beharrezkoa zutelako euskalgintzarako eginasmo ororen adierazle bezala ezker abertzalea bakarrik izatea.

### *Esperientzien gaurko aria*

Esperimentazioak hor dirau eta zaila da bere geroko ariari antzematea. ETA(pm)-EIA-EE taldekoen buruzagiek norantza bideratzen dituzten beren jarraitzaileen indarrak eta zer emaitzak lortzen ari diren aztertzea ez da lan erraza. Ez baitute garai bateko egitura bateraturik.

Besterik gertatzen da ETA(m)-HASI-HB taldetik sortu den NAEM deritzonarekin. Beren emaitzarik garrantzizkoenetako bezala jotzen baitute, Euskalerririkiko erreformaren zapuztaraztea lortu izana, Gernikako Estatutuaren bidea tratatuz eta bide horretatik letorkigukeen gehiengoaren bakeratzea galaraziz.

---

*sentido histórico: Liberación del Estado opresor y liberación de su propia configuración -presente y futura- como Estado Nación (desaparición del Estado y de las clases). En el caso de Euskal Herria del Estado español y del propio Estado nacional vasco futuro. Esta segunda idea lleva implícita -como componente fundamental del lo nacional-la lucha anticapitalista” {...} En resumen, la figura del Pueblo Trabajador Vasco, en un sentido marxista, sería el Pueblo para sí. El nuevo fantasma que recorre el mundo. Los vascos queremos ser independientes, condensa esta aspiración.”*

*{...}“En contraposición con las formulaciones marxistas de las denominadas fases (Revolución social, Dictadura del proletariado, Comunismo), nosotros consideramos que la lucha contra el Estado Español y la lucha contra el Estado son dos luchas simultáneas. Dos aspectos distintos de un único proceso. La soberanía nacional (no solamente la jurídica) no puede formularse sino en clave antiaparato de Estado. A su vez, la lucha contra el Estado es la lucha contra el Estado opresor existente en cada momento: en nuestro caso, el Estado español” {...} (J.Agirre, La contradicción principal en nuestros días, in EGIN, 1992/02/18) Burubide hori da zerbait barria da eta hargatik errepikatzen dute behin baino gehiagotan: “A lo largo de ese único proceso, tienen necesariamente que emerger las nuevas fuerzas sociales, políticas y económicas que definan la nueva nación vasca. Esto conlleva la emergencia del PTV como organizador directo, tanto del proceso de liberación como de la nueva estructura social.” “... la Izquierda Abertzale, no sólo persigue los objetivos inmediatos del MLNV (independencia y soberanía jurídicas), sino las aspiraciones estratégicas, encaminadas a superar el Estado y las clases sociales. **Este último es el verdadero sentido, las señas de identidad de la Izquierda Abertzale.”** (J. Agirre, ¿Qué es el MLNV?, in EGIN, 1992/02/24, hizki beltzagoak gureak). Alferrik ibiliko zara, Estaruaren kontrakoa izatetik aparte euskaldunen herri izatearen bestelako baliorik topatzen, J.Agirre-ren idazlan hoietan. Arazoa hain zuzen, zera da: kontra izate hori nola eraman ote daitekeen azkenetaraino *eduki antikapitalista* baten ikusguneetik.*

Baina ez du nahi hainbat indar biltzerik lortu, eman behar den jauzi dialektikoa burutzeko. Zenbait sailetan atzera ere egin dute (hauteskudentan adibidez). Horregatik dabil beren baitan eztabaida, ea ez ote den bide berririk urratu behar. Eztabaida horren arian, badirudi berriro ere bi joeratan banatzen ari direla, ideologiaz, helburuz eta estrategiaz bat datozenak. Izan ere gaur egun, 90.go hamarkadaren erdialdera bi aukera ikusten dira ezker abertzalearen baitan helburu hori lortzeko:

- bata, borroka armatuaren eta kale borrokaren eraso konbinatuen bitartez -eta bere protagonismoz- negoziaketa bultzatzea, mutur batean, Estatuaren ordezkariak izango lituzkeena, eta beste muturrean, ETA edo berak izendatutako ordezkariak (interlokuzioa), gainerako indar politiko eta gizarte-mugimenduei (bakearen aldeko mugimendu ezberdinei barne) bidea prestatzeko eta, gero, haien akordioen arabera, erabakiak gauzatzeko eginkizuna emango litzaiekeelarik;
- bestea, borroka armatua aldi luze batetarako utziz (tregua), herri-gizarte mugimendu bat gorpuztu, Estatuko buruzagiei onartezina zaien, baina herritarrik gehienek begitan bidezkoa den zerbait eskatuz (autodeterminazioa Euskalerrriaren soberania euskalerritarren borondatez erabakitzeko), era horretan Estatuaren erantzun ezkorra jasotzeko eta herria gero Estatuaren kontragoko jarrerataraz eramateko, ezinbesteko herri konfrontaziora emanaz.

Buruzagi ideologoen oraindik ere marxismoaren tradizio leninistari eta maoistari jarraitzen diotenez, badirudi bi aukera hauen arteko auzia, berriro ere *esperientziaren galbahean* erabaki beharko dela. Beraz baliteke bi bide hauek gero eta sendoagoak joatea. Ikusgune horretatik Euskalerrria esperimentu gune izango litzateke. Eta hori horrela den heinean, Espainiako Estatu buruzagi gorenak beti izango dute aitzakia Estatutua lehorrean itotzeko, beraz abertzale gernikazaleei beren herrigizartearekiko baterapena zailago izateko eta ETA-ri bidea errazteko.

### ***3.3. Nazionalismoaren kontrako gurutzada ideologikoa***

1981.eko otsailaz geroztik Espainiako Estatu buruzagitzan nagusi gertatu direnak eta NAEM-ko buruzagiek etengabeko erasopean eduki dute jatorrizko Gernikako Estatutua garatzeko edozein asmo eta inizatiba abertzale. Edozeinek daki, asmo ezberdinez ari direla batzuek eta besteak eginahal horretan. Baina bi aldetakoentzako badago baterapen puntu bat: abertzale gernikazaleen kontrako eraso ideologikoa, atertu gabe burutzen dena eta -sinesteak lanak ematen baditu ere- ezker abertzalekoak, eskuin españolistak eta ezker-eskuin internazionalista hainbat ere lagun egiten dituenak.

Cassinello-k esana bere egin duen idazle eta propagandista asko azaldu da, Espainiak eta Euskalerrriak bizi duten arazo larrienaren iturburu bezala Arana-Goiriren eta Agirre Lendakariaren jarraiko “nazionalismoa” dela sinestarazi nahi diguna eta, ondorioz, nazionalismoaren kontra atertu gabeko erasoan ari dena.

Espainian euskal abertzaleen kontrako erasoan Franco-ren gurutzada ostean nabarmendu ziren eskuindarrak ez ditugu hemen aipatuko, ezagunegiak berriro ere gogora ekartzeak irakurlea aspertu besterik ez bai luke egingo (rojos/separatistas). Horregatik, beste alde batzuetatik plazaratu direnak ekarri nahi ditugu gogora, bereziki ezker alderdietatik etorririk, abertzaletasunaren etsai amorratu bihurtu direnak.

Ricardo García Damborenea, Mario Onaindia eta Antonio Elorza besterik ez ditut aipatuko, hiru-hirurak ezkerreko tradizioetik plazaratu zirelako politikaren edota ideologi eztabaidaren zelaira, eta hiru-hiruren ezaugarrietako bat delako 80.engo erdialdetik honuntza ETA-ren eta bere eskuko NAEM-ren izatena, gertatzena eta ondorioak, azken batean, Arana-Goiri-ri leporatzeko.

García Damborenea izan da gurutzada horretako apostolu predikarietako bat eta bere hitzen mamia dagoeneko ezaguna zaigu: *“La fuerza del terrorismo {...} no está en las balas, como muchos piensan, sino en su ideología. Hagamos un jercicio espiritual sencillo. Imaginemonos un terrorismo vasco que no fuera nacionalista. Nada sería igual. Aunque alcanzara las dimensiones de las Brigadas Rojas ninguna de las connotaciones que hemos señalado hasta aquí podría quedar en pie. Los terroristas vascos tienen fuerza porque son nacionalistas en un ambiente nacionalista”*<sup>48</sup>

Bere eskuko *La encrucijada vasca* liburuan garbi erakusten du ez dagoela zer eginik PNV-rekin edota abertzale gernikazaleekin, hauek bakerik ez ekarri eta gerrari utsiko diotela eta -beren ideologiagatik eta beren erabakimen ezagatik. Halere -gaurko egunotatik begiratuta- irakurgarri dira GAL-i buruz esaten duena 1984.eko otsailean argitara eman zuen liburu horretan, kontutan zianik Segundo Marey 1984.eko abenduan izan zela bahitua. Euskal arazoa bitan banatzen da: bere sustraian (sentimendu eta ideologia abertzalean) eta bere fruituetan (terrorismoan). Bien kontrako borrokan ezin lezake ezer eskaini ez abertzale gernikazaleen taldeak eta ezta horien eskutik bideratutako Gernikako Estatutuak. Beraz, dagoeneko aipatu dugun Benegas-en errezeta berdina: muturmintzetatik lotu abertzale gernikazaleak eta hori lortzen ez den neurrian, Estatutua lotu ahal den gehiena.

Mario Onaindia-k aldarte asko igaro ditu: Burgosko Presoen Deklarazioa izenpetu zuenetakoa, EIA-ko buruetan buru, EPK-kin bateratze lana bultzatu zuena, PSE-PSOE-kin konbergentzi bidean jarri duena EE.... Bere hitzetan eta hizpidean ere alderik aurki daiteke. Baina baita estrategia ideologiko iraunkorrik ere. Horietan bada bat, benetan harritzen nauena. Klase-borrokaaren ikusgune sozialistatik borroka armatuaren beharra eta ezinbestekoa hainbat urtez predikatu duenak eta independentziarena borroka horren adierazpen formala besterik ez zela erakusten hainbat lan egin duenak, zergatik ez du alderdi hau azpimarratzen ETA-ren gaurko borroka armatuaz eta “terrorismoaz” ari denean? Eta zergatik saiatzen da aditzera

---

<sup>48</sup> Ricardo García Damborenea: *La encrucijada vasca*, Barcelona 1984, p. 21

ematen, borroka armatuarena hemeretzigarren mendeko nazionalismo zibilizatu gabearen ondorio dela?

Mahai gainean dut M.Onaindiak berak azken bost urteotan izenpetutako artikulu sail bat, hiru dozenatik gora. Pasarte bat edo beste aldatuko dut artikulu horietatik:

*“El radicalismo comunista, por ejemplo, lejos de servir como embrión de grupos terroristas, sirvió para que numerosos militantes etarras que fascinados por la lucha armada abandonaran tanto su fe en las pistolas como en el nacionalismo, para adorar a la clase obrera y su misión escatológica. Lo cual provocó que un país como Euskadi, donde existía una limitadísima tradición cultural comunista se convirtiera el pueblo con más maoístas, trotskistas, estanilistas y comunistas-revolucionarios por kilómetro cuadrado de Europa”*<sup>49</sup>.

*“ETA pudo haber sido en una época un dinamizador de la renovación del nacionalismo durante el franquismo, pero durante la democracia es el mayor obstáculo para el desarrollo de un nacionalismo distinto al sabiniano”*<sup>50</sup>

Mario Onaindia-ri irakurriko ez diozuna da, bera buru zela EIA-tik zer-nola, zergatik eta zertarako planteatu zuten *independentziaren aldeko estrategia sozialista*, zer eginkizun zegokion estrategia horretan borroka armatuari, non ote zituen bere sustrai ideologikoak estrategia horrek eta zertan zetozen bat eta zertan bereizten ziren ETA(m)-ri jarraitzen ziotenekin. Horren argibiderik ez du ematen, baina aparteko eginahalak jotzen dituela dirudi -aipatu bi pasarteetan bezalaxe- honako hauek saltzeko: a) ETA-ren gaurko jokabideak marxismoaren tradizioarekin ez duela inolako zerikusirik eta b) ETA-ren jokabidea Arana-Goiri-ren tradizio bati lotu behar zaiola eta honen mesedetako gertatzen dela.

Honetan nabarmendu zaigu, orobat, Antonio Elorza historilaria. Gaur egun Euskalerrian gertatzen denaren errurik inork izatekotan Sabino Arana-Goiri-k du, bere ustez. Batez ere haren oinordeko zintzoak izatea beste pekaturik ez bai dute gaur egun ETA-ren edo NAEM-en inguruan ari diren guztiak. Hain ziur dago honetaz bere baitan Elorza, Arana-Goiri-ri jarraituz Agirre Lendakariak eta bere hainbat alderdikidek eta lagunek demokraziaren alde egindako borroka aipatu ere ez baitu aipatzen (bere azkeneko artikuluetan behinik behin eta bi dozenatik gora ditut begibistan)<sup>51</sup>. Zaila da gero sinistea ere, Historiaren metodoetan ikasia den norbaitek, Arana-Goiri-ren hizpidea bere garaiko girotik etenda aztertzea, haren eragina bere jarraitzaile izan direnen ekintzak gogoan hartu gabe epaitzea eta, hain zuzen, haretxen dotrina arbuatzen dutenen ekintzak berari leporatzea.

<sup>49</sup> Mario Onaindia: *Ideas y lucha armada*, in: Diario 16, 1993/05/02, Dossier, p. XIII

<sup>50</sup> Mario Onaindia: *La alternativa se mantiene*, in El Correo, 1994/06/17, p.31

<sup>51</sup> Bizpahiru besterik ez dut aipatuko: A.Elorza, *ETA, historia y mito*, in: El País, 1993/08/20; A. Elorza: *Sabino, nuestro patrón* El País, 1994/04/07; bera,

Nazionalismoaren kontrako eraso ideologiko hori, Gernikako Estatutua bere osoan ez garatzeko aitzaki bezala erabiltzen da Estatuko buruzagi zenbaiten estrategian, lan honetan bertan aipatu dugunez.

### ***3.4. Gernikako Estatutuaren buruzagi abertzaleen jokabidea***

Abertzale gernikazaleen artean, nire iritziz, batez ere Gernikako Estatutuak euskalerrigintzarako dituen aukerei etekin betea ateratzeko, hutsegite nabarmenak izan dituzte ideologiaren sailean eta antolaketaren sailean

#### ***Ideologiaren sailean***

Abertzale gernikazaleen buruzagiek ez dute behar bezala asmatu, Gernikako Estatutuaren jatorrizko edukia zapuztarazi nahi zutenen joera eta indarra diagnostikatzen, batez ere ETA-ren jarraiko taldeei dagokionez. Diagnostiko oker horrek errazegi eraman izan ditu, agian, Estatuko buruzagiei agintzera, bizpahiru urteren buruko Gernikako Estatutuarekin konponduko zela ETA-ren arazoa. ETA-ko buruak eta PNV-eko buruzagiak helburu berdinak ote zituzteneko uste oso zabaldua egon da zenbait abertzale gernikazalaren buruan. Uste oker horrek eraman izan ditu, gerta ezin zitekeena agintzera. Izan, ordea, bestelakoak ziran eta dira, bai ETA(pm)-ko buruak eta baita ETA(m)-koak ere. Hainbestearainoko nahastea erakutsi dute sarritan abertzale gernikazaleen buruzagiek, eurek egin bai dute propaganda ETA-ko buruen alde, esanaz “nacionalistas radicales” omen direla. Jakina, horrela, PNV-eko (eta baita EA-ko) hainbat buruzagik berak eman du aitzaki beste zenbaiten aurrean, *ETA, bere estrategia, nazionalismoa, abertzaletasuna, eskubide historikoak, autodeterminazioa, Gernikako Estatutuaren eranskina, eta edonolako euskal eskabide (euskara eta ikastolak barne)* dena zaku berean sartzeko.

Nahasmendu ideologiko horrek, dudarik gabe, hainbat indar internazionalen aurrean, bere burua zurruntzeko aukera ematen dio Espainiako Estatuko buruzagitzari, euskalerritarren gehiengoaren borondateari ateak ixteko, ateak irekitzea terrorismoari haizea hauspotzea omen litzatekeeneko aitzakian.

Baina orobat nahastu zen PNV-eko zenbait buruzagi Espainiako Estatuko zenbait buruzagik eskainitako amuaz. Madriletik sinestarazi bai zioten bati baino gehiagori, euskalerrigintzak ez zuela aurrera egiten hau edo hori zegoelako halako kargutan. Izan zen, adibidez, sinestu zuenik PSOE-ek ez zuela transferentziarik burutzen Carlos Garaikoetxea zegoelako Lehendakari. Ezin ahaztuko da, izan zela (garai haietan) Aldun Nagusirik, Lehendakariaren isilean negoziatu zuena Madrilekin. Buruzagi politiko baten errurik larriena zera da: lagunak eta etsaiak bereizten ez jakitea, kasu honetan, Gernikako Estatutuaren erabateko garapenaren aldekoak eta kontrakoak bereizten ez jakitea. Erru horren zurrumbiloan buru belarri murgildu den abertzale gernikazalerik izan da eta bada.

Hortik bideratu diren ondorioak larriak izan dira abertzale gernikazaleok genuen eta dugun herrigintzarako.

Ideologiaren mailakoa den beste hutsegite bati ere aipagarri deritzot. Abertzale gernikazaleen buruzagiek ez dirudite, sarri askotan, ez euskalerrikoak direnik eta ezta euskaldunak direnik ere. Munduan gertatu diren esperientzia eta teoria demokratikoak ez dakite bertan izan ditugun esperientziekin eta teoriekin alderatzen, batzuen eta besteen alde onak eta txarrak eztabaidatzen, eta beren buruz landutako proposamenak egiten. Beste sailetan egin da hori Euskalerrian eta baita ondorio bikainik atera ere. Adibidez Kooperatiben Mugimendua. Politikan antzeko gutxi egin dugu eta gerezko ezer gutxi landu dugu, errazegi kopiatuz administrazio jakobinoaren okerrak, batez ere azkeneko urteotan (Gernikako Estatutuaren lehen urteetan ez bezala). Herrigintzari begira euskalbideak urratzen jakiteko gaitasun ezaren lekuko zaigu, orobat, ez direla Euskalerrinari dagozkionak euskaraz eztabaidatzen. Ingelesa ikasteko denbora izan duen zenbait buruzagik ez du hamasei urteotan tarterik hartu ahal izan euskaraz bere burua gaitzeko eta hor ari da gero bere aho sabaia berotzen, al dakit nik zer esan nahi duten inongo hitzekin (soberania eta antzekoekin ...) herria erdaraz zuritu nahian.

Guzti horrek, abertzale gernikazaleen artean, sarritan jarraikeriazko edo segidismoko jokabideak sortarazi ditu, jokua eginaz zenbaitetan “*muturmintzetatik lotu*” nahi zituzten estatuko buruzagiei edota erreboluzioaren dantzan jarri nahi zituzten ETA-ko estrategei.

### ***Herri-ekintzaren sailean***

Herrigintza, baina, hitzak berak dioenez, horixe da: ekintza. Zer-nolakoa izan da abertzale gernikazaleen gidaritzapean burutu den euskalerrigintza? Ba, hor ere izan dira hutsegiteak eta aitortzen jakitea baino hasera hoberik ez dago okerrak zuzendu nahi badira.

Batetik esperientzia faltak eta bestetik azkar ibili nahiak, hainbat erabaki okerren ondorioak jasatera eraman gaitu. Tarte luzeagoa eskatuko luke esperientziak konparatzeak eta batzuen eta besteen alde onak edo txarrak agertzeak. Beste batetarako utzi beharko ditugu horiek.

Bainan, sarritan, batez ere erakundeen antolaketan sortu diren arazoek, halako giro bat sortu dute, Gernikako Estatutua garatzea ez dela kontua, baizik dagoeneko garatua dagoena ondo erabiltzea. Batzuek aitzaki bezala erabiltzeak ez du esan nahi, arazorik ez dagoenik sail horretan. Baina, esan bezala, beste batetarako utziko dugu gorabehera, hau.

## 4. Euskal herrigizartegintza eta burujabetza

Abertzale gernikazaleok ez gaude beraz aldarerik onenean. Baina, Halere, gure euskal herri-gizarteko gehienok ez dugu beste bide egokiagorik ikusten oraingoz. Gure eginbidea, lehenik, geure eginasmoa zehazten joatea da, oinarri sendoak emanaz, bai etika aldetik, baina baita burubide politikoen aldetik ere, gero ekintza gidatuko dutenak eta egiten duguna epaitzeko balioko digutenak. Honetatik hasi beharra dago, gero indarrak biltzeko eta egokiago antolatzeko, ditugun eginbideei hobeto erantzuteko

Norabidea argitzea da, beraz, lehenengoa.

### 4.1. Norabideaz

Euskal herrigintzaren norabidea, munduaren gaurko aldarrean, hemen bertabertako baino ikusgune zabalago batean kokatu beharra daukagu.

Zientziaren eta teknikaren ekarri berriek izugarri ugaritu dizkigute zer-nahi egiteko baliabideak eta aukerak. Erabili ordea, geure onerako bezala erabili ditzakegu geure buruen, gizakideen eta naturaren hondatzeko ere. Aukerako baliabide horiek geure galeran ez erabiltzeko, hona hemen ezinbestean erantzun beharreko galdera: *bakoitzak egin dezakeenari zer-nolako muga ezarri eta zer norabide eman behar dio?*

Galdera hauxe du aztergai **Hans Jonas** filosofo alemaniarrek etorkizunerako etikaz idatzi zigan **ERANTZUKIZUNA GOIBURU** (*Das Prinzip Verantwortung*, 1979) izeneko liburuan. Zientziaz eta teknologiaz baliatuz gizakiak bere buruari, gizarteari eta bere jatorrizko inguruneari ekar liezaizkiokeen ondorioetaz hainbat ikerlan eta hausnarketa burutu duen pentsalari oparo honek testamentu gisa eskaini digun azken hitza da. Bere erantzunaren muina hitzotan bil daiteke: *hainbestekoa denez gizakiak bereganatu duen ahalmena zer-nahi egiteko bere buruari, besteei eta naturari, beren buruak erantzukizunari lotzen dizkioten gizon-emakumeek bakarrik gorde lezaketek gizakia bere erabateko galbidetik. Erantzukizuna ez baina bakoitzaren borondateaz bakarrik, baizik eta baita -batez ere!- bere erabakien ondorioetaz. Euskaraz hazi izan garenoi ere hori bera eman ohi ziguten aditzera, honako hau esan ohi zigutenean: *izan eure buruaren jabe!* Bere buruaren jabe izan nahi duenak, *jabetu* egin behar du lehenik bere buruaz, besteetaz eta bere inguruneaz, baina baita, orobat, berak hartutako erabakien eta emandako hitzaren ondorioetaz *jabe egin* (erantzukizuna hartu) ere.*

**Buruaren jabe izatearena, gerta daiteke, goiburu bateragarri hainbat euskaldun, euskotar, euskaltzale, abertzale eta euskalerritarrentzako.** Mugak erabat irekitzen diharduen gure gizartean, ez dago herririk ez eta beste inolako talderik bere norizateari eutsi diezaiokeenik, baldin eta esparru ireki horietan bere norabidea gida lezaketen goibururik eta helbururik ez badu.

### ***Burujabetza eta herrigintza***

Galdera baina zera da: Euskalerrria -bere osoan edo bere herrialdetako batean-zer-nola gerta ote daitekeen beste baten menpeko ala bere eskuko eta bere buruaren jabe. Auzi-mauzi horren inguruko eztabaida prentsan agertu ohi denean, honako hitzei (edo antzekoei) loturik azaldu ohi da: *jatorrizko eskubideak edo eskubide historikoak, forutza, autonomia, soberania edo subiranotza, independentzia, konstituzioa, estatutua, foru-hobekuntza, autodeterminazioa, askatasuna, burujabetza, e.a.* Euskal herrigintzari eragiten dieten (bertako eta atzerrietako) indarren baitatik, sarritan esaten da abertzale gernizaleek ez dutela hizketa garbirik. Hori aitzakia besterik ez da gehienetan zor dutena ukatzeko. Baina egia da ez dugula geure hizpidea gehiegi landu euskalerrigintzaren goiburuetaz eta jomugetaz hitz egiterakoan.

Hitzen eta kontzeptuen nahasketa dabil. Baina izan da nahasketa Honetan argibideak urratzen lanik egin duenik ere. Horietako bat Irala-ko Anton izan da eta, hemen, berak honetaz idatzitako hainbat idazlanetan emandako zenbait iritzi bilduko dut. Adibide modura aipatzen dut bere ekarria, beharrezko zaigun eztabaidaren suspergarri gerta litekeelakoan, hain zuzen.

Idazlan horien artean aipagarri dira, 1948-49 bitartean Jemein-go Keperin-i egindako hiru karta, alegia bigarren mundu gerra bukatu ostean eta hemen bertako guda bukatu eta ia hamar urtetara. Karta haien bidez, geroko Euskalerrriaren norabideaz eztabaida sakon bati eragitea beste asmorik ez zuen Irala-ko Anton-ek eta giro horretan azaltzen dizkie bere iritziak alderdikide eta lagunei <sup>52</sup>.

Euskalerrriari eta herrikide bakoitzari opa dion goiburua ***bere buruaren jaube izatea*** da, ***burujabetza*** alegia. Zer da, baina, bere buruaren jaube izatea? Gizalegez eta herrilegez zor duena egitea, bere erantzukizun etikoa betetzea, bidezkoa dena egiaztatzea.

Irala-ko Anton-ek garbi dio ez direla nahastu behar *burujabetza*, *askatasuna*, *erabakimena* (autodeterminatzeko eskubidea esango genukeena gaur egun) eta *independentzia*.

Askatasunik ez izatea lotuta egotean datza eta lotuta dagoenak ezin burutu lezake ekintzan bere erabakirik; askatasunik ez duenak, bere buruaren jabe gertatzeko muga larriak ditu, beraz. Hargatik jotzen du askatasuna burujabetzarako baldintza. Erabakimena (hautesmena), bere buruz aritzeko gaitasuna besterik ezta, baina hori ere beharrezko, buruaren jabe izateko. Burujabetza, baina, norbere buruarekiko eta beste

---

<sup>52</sup> Irala-ko Anton-ek, Jemein-go Keperin-i (Pau, Hotel d l'Europe) zuzendutako hiru karta horien datak eta orriak honako hauek dira: 1948/12/20 (20 orrikoa); 1949/1/26 (64 orrikoa) eta 1949/3/1/ (21 orrikoa). Idazlan horietan daude hemen jasotzen diren burubiderik nagusienak dagoeneko zehaztuta. Horietaz aparte badu Irala-k beste hainbat idazlan, *Bat bitan banatzen da* (1975 -gazteleraz 1976), *Revolucion-Represión o Burujabetza* (1981 -elkarlanean) eta hamaika eskutitz hari eta honi idatzitakoak.

herrikide guztiekiko jokabide etikoa da, ezinbestean, norberaren eta beste guztien askatasuna eta aukeramena babesten saiatzen dena, bakoitza bere eskuko eta -aldi berean- elkarteko egiten duena. Independentzia ez litzateke beraz hitzik egokiena, Iralaren ustez, jatorrizko eusko abertzaleen asmatoko Euskadigintza adierazteko; nor edo herri burujabe denaren goiburua baita, derrigorrean ezarritako dependentziak desegitea, baina, aldi berean, askatasunez eta borondatez elkarrekiko dependentziak sortu eta sendotzea. (Gizakion jomuga ez baita, zein beretzako bakarrik bizitzea, elkartegintzan burujabe izatea baino).

Ez norbere buruaren eta ezta herriaren askatasuna, hautesmena eta independentzia ez lirateke, beraz, Irala-rentzat, inola ere herrigintzaren -ezta gizagintzaren- azken zertarakoa. Giza eta herri-norabidearen ardatza, burujabetza baita berarentzat (eta ez burujabetasuna -estatikoa bailitzake hitz hori, buruaren jaube izatearena ez da-eta sekula burutzen, beti delako eginbide eta eginkizun, burujabetza, hain zuzen).

Goiburu horien zertze politikoa ezta soberania, soberaniaren kontrako borroka etengabea baino. Irala-ren ustez soberania da modernaroko burubide politikorik ankerrenetakoa, elkartegintza demokratikoa galarazten duelako, eta derrigorrezko morrontza errazten duelako, bai herrikideen artean eta baita herrien arteko harremanetan ere.

Soberaniaren kontrako borroka zuhurra izan da Euskalherriaren izanbideari geroratzeko aukera eman diona iraganean eta geroenean ere soberaniaren kontrako borrokan egin lezake gehien bai bere alde eta baita herrien arteko harreman demokratikoen alde. Ezin zaio soberaniari eutsi eta federaziogintzari ekin. Federakuntza jatorrenak eztira antolatu izan, soberania nork duen erabakiz, baizik eta bakoitzaren besteekiko eginbideak zeintzuk diren zehaztuz eta horien betetzera behartuz beren buruak.

Halere, agian soberaniari baino beldur handiagoa dio Irala-k herria iruzurtzeari, engainatzeari. Berak jasotzen duen esaera da, euskaldunak erraz iruzurtzen direla, nahiz-eta nekez ematen duten amor. Burujabetzaren etsairik nagusiena, burua jatea da, iruzur egitea, engainatzea. Bere burua galdu duena -naiz eta askatuta egon- ezta bere buruaren jabe gertatuko. Iruzurkeriaren eta soberaniaren kontrako borrokak, etengabeko borroka izan behar du, eta herri bakoitzaren baitan bezala herri arteko harremanetan ere aurrera eraman beharrekoa da, herrikideak eta herriak beren buruaren jabe izango badira.

Goiburu eta jarrera horien harikoa izan da Irala-ko Anton-en iritzia azken urteotan euskalerrigintzari begira bizi izan ditugun aldigunerik kritikoenetan:

- Espainiako 78.eko Konstituzioa zela-eta, hegoaldeko Euskalerrientzat beren buruaren jabe izateko zenbait lotura ezabatzea eskatzen zuen: 1839.etik Espainiako Gorteen Euskalerriei ezarritako lokarria (urriko 25ekoa) behin betiko haustea (askatasunaren baldintza birsortuz), Euskalerriek -beren baitan, beren artean eta inguru herriekiko

harremanetan- elkar lanari ekiteko burujabetzaren bidetik. Baina Irala ez zen Espainiako Konstituzioan Euskadiren autodeterminatzeko eskubidea ezartzearen aldekoa, Espainiako Gorteak ez direlako nor eskubide horren giltza beren baitan gordetzeko. Irala-ren ustez 1839.eko urriko 25eko legeak lotu zion Euskalerrien erabakimena Espainiako Gorteei eta gortekideek euskotarren burujabetzaren alde eman zezaketen pausorik premiazkoena, Euskalerria lotura horretatik askatzea zen: beren aurrekoek egindako bidegabekeria aitortuz eta, beraz, bidegabekeria hura zuzenduz, zegokion legea betirako urratuz eta indargabetuz.

- Bereziki Nafarroari buruzko eztabaidan, iritzi berekoa zen Irala, askatasuna eta aukerarena aitortzearen aldekoa nafarrei, beren borondatez -loturarik gabe eta inolako mehatxurik gabe- erabaki zezaten bidezkoztat jotzen zutena. *Nafarroa Euskadi da* oihukatu ordez, euskaldun-euskotar denak *Nafarroarentzat askatasunik eta aukeramenik* gehiena eskatzearen aldekoa zen.
- Gernika-ko Estatutua eztabaidatu zenean, Konstituzioa geratu zen bezala geratu zenez, bi burubide nagusi zituen Irala-k
  - \* lotsarik gabe eskuratu behar zituela hiru lurraldeek osatutako elkarteak jatorriz zegozkien aukeramenetako batzuk (Estatutuan onar zitezkeen ahalik eta gehienak) burujabetzaren aldeko lanerako baliabideak lortzeko;
  - \* baina hori bezain garrantzizkoa jotzen zuen, berezko Eranskin batean garbi jasotzea, Euskal Autonomi Elkarteak ez diela uko egiten jatorriz eta herri denez zor zaizkion eskubideei.

### ***Burujabetza eta gizartegintza***

Burujabetzak, baina, Irala-ren baitan, badu beste esparru bat: gizarte ereduari edo gizarte asmoari buruzkoa, hain zuzen. Irala-k idatzitako aipatu kartetan horixe da gairik nagusienetakoa. Eta ezin bestean, aurretik agertu dugunaren arian dator. Bere buruaren jabe izateko, bere erantzukizunak bete ahal izateko, bitartekoak behar ditu edonork eta baita edonongo elkarte bakoitzak ere. Gizartekideok eta herrikideok bi eratako baliabideak ditugu: berez eman zaizkigunak (lurra, egaztiak, ura. e.a.) eta gizalanez eskuratu ditugunak, hauek ere bitan banatzen direlarik: aurrekoen lanez ondare bezala jasoak eta geure ekimenez eta ihardunez lortuak.

Bere buruaren jabe izan nahi dutenek, zertan oinarritu behar dute ondasunen banaketa? Nor zertaz baliatzea izan daiteke bidezko?

Gai honetaz Irala-ren ekarri berezia, agian, zera da: bere buruaren jabe izatea eta lanaren jabe izatea, goiburu etiko bat beraren bi alderdi bezala jotzen dituela. Bere ustez, ezer gutxi balio dio norbaiti legezko lotura politikoak kentzeak, aldi berean bere lanaren jabe izatea galarazten bazaio. Bere buruaren jabe behar duenak, bere lanaren jabe izan behar du.

Honetatik uste baleza norbaitek, Irala-k burujabetza eta propietate pribatua uztartu nahi dituela, usterik ustelenari heldu dio. Nor bakoitza (gizakia, etxekidea, auzokidea, herrikidea) beren lanaren jabe gertatzea, ez baita bere eskura dituen ondasunekin bakoitzak nahi duena egitea (hori izatekotan ere, ondasunekin zernahi egiteko askatasuna litzateke, ez ordea jabetza, Irala-ren baitan, ondasunak erantzukizun etikoz erabiltzea eskatzen duena). Horregatik dira bere kritikarik zorrotzenak eta argienak *propietate deretxoaren* kontrakoak, ondasunak gozatu eta erabili ezezik, zernahitarako erabili ahal izatearen (jus disponendi, jus abutendi) kontra alegia. Eta gogor kritikatzten ditu deretxo hori gizabanakoari berezko eskubide bezala ezarri nahi dioten kapitalistak eta kanonistak; eta ezinbestean kritikatzten ditu deretxo hori estatutuaren (edo beste inolako boterezko entelekia baten) eskutara aldatzen dutenak.

Ondasun iraunkorrak (basoak, lurrak, mendiak, larreak, hibaiak ...) eztira izan euskaldunen tradizioan *etxearenak* edo *herriarenak* -are gutxiago nor jakin *batenak*-, baizik *etxeoak* edo *herrikoak*. Baina nor jakin bakoitzari bakarrik zerbitzu egin ohi dion ondasun bat (soinekoa edo atorra), noski *alakorena* da eta ez herrikoa. Hori bai ordea: ondasunak beti behar dute, beren erabileraz eta etekinaz (lanaren bidez) jabetuko den (ardura eta erantzukizuna izango duen) norbait.

*Propietate deretxoaren* muina gaitzetsiz ondasunekiko harremanak arautzeko goiburua bezala, zera dio:

- \* ondasunak beren berezko zer-nolakoaren arabera egiten diete zerbitzu herrikideei eta beraz ezin daitezke denak era berdinean egokitu herrikideen beharrak asetzeko;
- \* ondasunen gozatzeko eskubidea damaiona (bakoitzari, etxeari, auzoari, herriari) aldian-aldiko lana da, nagusiki.

Irala-ren ustez, Euskalerrriak bere izanbideari eutsi izanaren giltzarrietakoa litzateke, hain zuzen, lanaren nagusigoan oinarritutako gizarte kultura bat jaso izana. Angulo-Laguna Notarioak ziona dakar gogora sarritan, bizkaitarren artean “*lanari zor zaio jabetzako eskubidearen berezko gertatzena eta lana da eskubide hori itzal handiko eta gogoangarri egiten duen ziorik gurenena*”. Notario horrek -bizkaitarrak ondasunak banatzerakoan erabili ohi zuten jokabidea aztertu ondoren- ateratzen zuen ondorioak garbi erakusten zuen Irala-ren ustez, propietate deretxoa baztertu izan zutela euskaldunena izan gizarte tradizioan.

Kontua baina ezta iragana, oraina eta geroa baizik. Ondasunekiko harremanen auzia, gaur biharko herrigintzaren giltzarria baita Irala-rentzat. Euskalerrrian ezezik, inguru herrietan eta mundu zabalean pizten diren eta irauten duten hainbat gatazken sorburua, ondasunekiko harremanak gaizki arautu eta erabiltzean dago. Ezina da herriren bat bere buruaren jabe izan, herrikideak beren lanaren jabe ez badira. Hargatik goraiatzen ditu gizalana, etxelana, auzolana eta herrilana. Inoiz berak esana,

Aberri Eguna eta Lanaren Eguna, biak batera ospatzekoak izan behar zutela gerorako euskalerrigintzari sustrai sendoenak ematekotan.

Burubide horien haritik dator, euskal gizartearen berreraikitzekeo lantegiak izan behar dutela gunerik estrategikoenak, hor bertan lortu behar delako herri ekimenaren erabateko integrazioa herrigintzan.

Arrasateko Kooperatiben mugimendua izan da, azken urteotako Euskalerrriaren historian, Irala-k gogorik bizienaz jarraitu duen esperientzia.

### ***Burujabetza eta herrigizartegintzarako baliabideak***

Euskal aberrigintzari buruzko eztabaidaren beste barrutia, herrigintzan bidezkoak diren bitartekoei buruzkoa da: *legezko bideak, kaleko mobilizazioa, borroka armatua, indarkeria, Ajuria-Eneako Ituna, e.a.* Arazo hau, azken urteotan, bereziki nahasia da gure artean.

Irala-ko Anton, 1936.ko udan atxilotu zuten Murgian falangistek eta goardia zibilek. Baita ihes egitea lortu ere eta EBB-ra jo zuen Bilbo-n armarik ba ote zuten galdetuz, berarekin egin zutena, Jose Antonio Agirre eta gainerako burukideekin are ziurrago egingo zutela ohartuz, eta zetorkien eraso basatiari igarriz, beren buruak babesteko indar armatua ezinbestekoa izango zitzaizela konturatuz. Armarik ez zutela esan zioten eta berari eskatu zioten nonbaiten lor zitzala, erosi eta ekarri. Dirurik ba ote zegoen erosteko eta ez zutela esan zioten, hori ere berak eskuratzeko. Irala eta Monzon arduratu ziren eginkizun hortaz eta hauek ekarritako armaz hornitu ziren euskal gudarosteak sortu berria zen Eusko Jaurlaritzaren aldeko defentsan.

Irala-k ez du uste bakean utzi behar zaionik herri borondatearen kontra eta bidegabekeriak erasoka ari den inori. Beraz, aurre egiteko armak hartu behar badira, hala egin behar da. Eta horretan eman zituen urteak.

Baina Irala-k ez du uste indarra denik gizartegintza eta herrigintza bidezko egiten duena, alderantziz baino: bidezko elkartegintzari zuzenean erasotzen dionaren kontra bakarrik erabili behar da indarra, herria erasotik babesteko alegia.

Gizarteko harremanetan eta herrien artean sortzen diren arazoak konpontzeko ez du uste armak direnik herriari mesederik gehien ekartzen dioten bitartekoak. Berak sarritan esana duenez, askatasun faltaz sortu diren arazoak, askatasunetik abiatuz bakarrik konpon daitezke. Askatasuna bera bakarrik ezta aski, arazoak konpontzeko, baina bai ezinbesteko bitartekoa.

Euskalerrigintzaren goiburu sakratu bezala sarritan aipatu izan du Irala-k Bizkaiko Foruak *tormentuaren eta tormentu erasoaren* kontra diona. *Tortura, tiroketa, bahiketa, isileko edo ageriko mehatxua ...* herrigintzarako armatzat hartzen dituztenek, gaur egun, erreboluzio-errepresioaren zurrunbiloan itotzeraino murgildu lezakete gure herriko gizarte sarea eta gure inguru herriekiko harremana. Hortik burujabetzaren bidera

ateratzeko, geure buruak indarraren indarrean itsutu ordez, herri ekimen demokratikoari ekin beharko lioke euskal gizarteak, batez ere lan-mundua eraldatuz eta garatuz.

Indarraren indarrean ez itsutzeko herrigizartearen manu bakarreko egituretatik ihes egin beharra dago. Gune bakarrean (pertsona batean, klase batean, estatuaren aparatu batean) ahalmen guztiak orobiltzen den edozein gizarte herritan tirania nagusitzen delako. Herri gizarte aberatsa nahi du Irala-k gune asko dituen, baino gune artean sare sendoa, burujabetzaren kulturaren sustraitutako herrikideek osatzen dutena. Beldur dio herri bateko ekonomia gune bakar batetik zintzilik duen herriari. Are beldur gehiago dio, kulturgintzarako harrimintak herrigintza kontrolatzen duen bakar baten eskutan uzteari. Nazifaxismoa eta sozialfaxismoa dira eredurik ezkorrenak, bere buruaren jabe izan nahi duen herri batentzako.

#### ***4.2. Indarrak biltzeaz***

Nora joan eta nondik-nora ibili jakin ez dakienak, ezin jakingo du aurrera ala atzera doan edo gora ala behera jo duen. Baina bere buruaren jabe behar duen herrikideak, gizarteak eta herriak, horixe jakin behar du lehenik: nora doan jakin eta bide egokitik ote dabilen epaitzeko kriterioak argi eduki. Herrigintzaren eginbideak berez dira herkidegoaren artekotzan burutzeak. Herkideen arteko iritzien trukea, eztabaida eta gogoeta ezinbestekoak dira, beraz, herri garenez edota herri nahi dugunez nora jotzen ote dugun argitzeko. Ez bakarrik, bakoitzak nora jo nahi duen jakiteko, baizik eta elkarren artekotzan ditugun norantzako joera ezberdinen jakinaren gainean jartzeko elkar eta, horrela, gertatzen zaigunaren jakitunago izateko. Hortik hasten baita buruaren jabe izateko aukera.

Herrigintzak, askoren adorea, indarra, borondatea, emana eta eragimena eskatzen du. Baina, herrikide burujabeak nahi dituen herrigintzak, norabideak argitzetik eta norabide horri begira, adiskideak, lagunak eta herrieginkideak zeintzu diren zehaztetik hasi behar du. Ez, noski, gainerako herrikideak denak etsai bezala jotzeko -burujabetzan sustraitzen den herrigintzarako-, baizik eta bere asmoak zer-nolako oztupoak izango dituen jakiteko.

Hemen ez dago azken hitzik. Euskalerrigintzan saiatu nahi dugunon arteko eztabaidari eragiteko oharrak direlakoan aukeratu ditut hemen bildu ditudanak. Eztabaida horretan argi gehiagorik lortzen den, hitzek baino areago ekintzek erakutsi beharko dute.

***Francisco Garmendia***